

Zumaiako
Udala



elhuyar

ZAINTZA ZAINTZEN

ZUMAIAKO ZAINTZAREN DIAGNOSTIKOA



Txostena

2023ko urria



AURKIBIDEA

1	SARRERA	1
2	HELBURUAK	4
3	INFORMAZIO ITURRIAK	5
4	ZUMAIAKO HERRITARREN PROFILA	7
4.1	Zumaiako datu demografikoak.....	7
4.2	Herritarren kaudimen ekonomikoa.....	15
4.3	Zumaiako familia ereduak.....	28
4.4	Bakardadea Zumaian.....	30
5	HERRITARREN EGOERA FISIKO ETA PSIKOLOGIKOA	34
5.1	Zumaiako herritarren egoera fisikoa.....	34
5.2	Zumaiako herritarren kontsumo-ohiturak.....	41
5.3	Zumaiako herritarren lan baldintzak.....	49
6	ZAINTZA LANAK ZUMAIAN	53
6.1	Ordaindutako zaintza lanak.....	53
6.2	Ordaindu gabeko zaintza lanak.....	89
6.3	Zaintza zerbitzuen inguruko herritarren ikuskera.....	93
7	IRISGARRITASUNA	95
7.1	Irisgarritasun aldetik herrian dauden arazoak eta puntu-beltzak.....	95
8	KOMUNITATEEN ARTEKO KOHESIOA	98
8.1	Herritar etorkinen bizipenak eta beharrak.....	100
9	ONDORIOAK	102

1 SARRERA

Prebentzio Mahaia Zumaiako herritarrekin, oro har, eta, bereziki, haur, nerabe, gaztetxo eta familietako kideekin lan egiten duten herriko erakunde esanguratsuenak elkartzen dituen sarea da. 2010. urtetik dago abian eta bide horretan eboluzio oso handia jasan du, besteak beste, hainbat gai jorratu dira bertan eta askotariko partaideak izan ditu.

Gaur egun, bertan parte hartzen duten eragileek elkar hobeto ezagutu, koordinatu eta indarrak batzen dituzte, bakoitzak bere eremutik arrisku adierazleak identifikatuta helburu komunak eta bateratuak definitzeko eta herritarren prebentzioan eragin dezaketen programak aurrera eramateko.

Honakoak dira, zehazki, mahaian parte hartzen duten Zumaiako eragile eta norbanakoak:

San Juan egoitza
AGIPADeko Prebentzio Teknikaria
Guraso zaintzaileak
Zumaiena Guraso Elkarte
Osasun zentroko erizaina
Turismoa, merkataritza, komertzio teknikaria
Hirigintza, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuetako arduraduna
Udaltzainburua
Zumaiako Alkatea
Zumaiako Gaztegunea
Urolako Osasun Publikoko Eskualdea
Otezuri (Matia fundazioa)
Komunikazio arduraduna
Sendia taldea
Kultura teknikaria
Zumaia BHI
Zumaiena ikastetxea
E.E.L.Z. koordinatzailea (Eulen)
Beheko-plaza Jubilatuta Elkarte
Nagusilan
Zumaiako Herri Eskola
Gizarte zerbitzuak (Kalexka, Zumaiako esku hartze taldea)
Otezuri / SAD (Malen Etxea)
Ludoteka
Berdintasun-saila
Gizarte zerbitzuak
Osasun Saila

Prebentzio-Mahaiak 2022. urtearen hasieran erabaki zuen datozen urteetako lan-jarduna zaintzaren inguruan ardaraztea. Ez da gai horri herri eta eskualde mailan heltzeko erabakia hartu duen eragile bakarra, hala ere. Izan ere, mugimendu feminista, Urola Kostako Udal Elkarte eta hainbat eragile sozial ere ari dira gaia lantzen:

> **MUGIMENDU FEMINISTAK** abiatutako lanketari dagokionez, zaintza-sistema publiko komunitarioa definitzea du helburu, bertatik ateratzen diren ideiak martxan jartzeko oinarria eraikitzea, hain zuzen ere. Proiektu horrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoa jaso du.

Horretarako, batetik, elkarrizketa kolektiboak egin zituzten, kolektibo ezberdinekin, zaintzaren inguruan zuten kezkek zein ziren: gazteak, adinekoak, gurasoak zaintzen hasi direnekin... Gai horrekiko hurbiltasun maila zein zen aztertzea izan zen helburua. Horrez gain, beste elkarrizketa batzuk ere egin zituzten, profesionalekin, gizarte zerbitzuetako arduradunarekin, osasun zentroarekin... zaintzaren inguruan dauden ikuspegiak jasotzeko. Txosten bat osatu da horrekin guztiarekin eta, ziurrenik, larunbat honetan argitaratuko da. Eta, bestetik, jardunaldiak ere egin ziren gai desberdinak lantzeko.

Lanketarik ondorioztatu ziren ideia nagusiak honakoak izan ziren:

- Zaintza unibertsala bermatzea eta artikulatzea beharrezkoa da.
- Ikuspegi integratuaren ideia: osasun, gizarte sistema... bateratuko dituen ate berdina, bentanilla bakarra, beharrezkoa da horretarako.
- Udal eremuaren garrantzia: udala izan behar da zaintza sistema publiko-komunitarioa kudeatu behar duen eragilea, beharrezko baliabideak bermatuta eta transferituta.
- Berdintasun materialaren beharrezkotasuna.

Horrez gain, jardunaldietatik hurrengo hilabeteetarako lan eskema bat ere ondorioztatu zuten: lehenik beharrak identifikatu; ostean behar horiei erantzuteko proposamenak jaso; eta, gero, plano politiko-instituzionalean, proposamenak garatzea noren ardura den eta zein mailatan erabaki. 2023 urtean ariketa hori egiteari ekin diote eta, aurrerantzean, horrekin lanean jarraitzeko asmoa dute, adinkeria eta bakardadearen gaiak kudeatzeko lanketa ere abian jarri dutelarik. .

> **UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEARI** dagokionez, berriz, 2022ko abenduan eman zion hasiera "Zaindu Urola Kosta" ekimen berriari, eskualdean zaintza arloan dauden beharrei erantzuna emateko.

Izan ere, aurreikuspenen arabera, datozen urteetan mendekotasun-tasak gora egingo du, eta, ondorioz, zaintzari lotutako enpleguak ere gora egingo dute. Eskainiko den zaintza zerbitzua kalitatezkoa izatea garrantzitsua da, eta, hori da, besteak beste, "Zaindu Urola Kosta" programaren helburua. Horren baitan, udal bakoitzaren zaintza zerbitzuen inguruko diagnostikoa egiteari ekin dio mankomunitateak, lan-poltsa abian jarri du, etab.

> Azkenik, **MALEN ETXEAK** ere beste dinamika bati ekin dio zaintzaren testuinguruan: zaintzaileen zaintzan nahi dute erreparatu. Zaintza lanetan aritu diren pertsonen epe ertainean zaintza beharko dutela jakinik.

Gauzak horrela, zaintzaren gaia lantzeko eta egungo zerbitzuen karta, rolak... behar berrietara berregokitzeko beharra agerikoa da: instituzioak, tokiko erakundeak eta mugimendu sozialak arduratzen ditu gaiak.

Prebentzio-Mahaiak ere zaintzaren gaia lantzeko erabakia hartu zuen, hortaz, eta arlo horri dimentsio desberdinetatik heltzeko bide-orri bat eta lan-dinamika eraginkorrago bat behar zela iritzita, bidelaguntza eskatzea ere erabaki zuen eta Elhuyar kontratatu zuen, 2023ko abendura arte, aholkularitza eta dinamizazio lanak aurrera eramateko.

Kontutan hartu behar da oso eremu zabala dela zaintzarena: zaintzaren definizioa eta erantzukizuna esparru zientifiko, politiko, profesional nahiz sozialean luze eta zabal eztabai-gai diren alderdiak dira

eta ondorio sakonak ditu, bai pertsonen eguneroko bizitzan, baita gizarte-politiketan ere. Zaintzak, alde batetik, familia, Estatua, merkatua eta gizarte zibilaren arteko mugaz gaindiko espazioak barnebiltzen ditu; bestetik, gizarte-harremanen modalitateen artean, harreman hori borondatezkoa, ordaindua edo familiarra zein bestelako antolaketa sozialetakoa izan daiteke; eta, gainera, arlo profesionalaren eta ez-profesionalaren arteko bereizketak ere zeharkatzen du.

Gauzak horrela, Prebentzio-Mahaiak gaia lantzeko prozesuari ekin zion, zaintzaren ulermen partekatua eraikitzen hasita. Zehazki, honako gaiak aztertzea jo zuen beharrezkotzat:

Familia barruko zaintza: ordaindu gabeko zaintza lanak, denbora izatearen beharra, zaintza lan profesionalak.

Norberaren egoera fisiko eta psikikoa: adimen emozionala, antsietatea, estresa, bakardadea...

Herritarren kohesioa: Zumaiaiko komunitate anitzen arteko harremana, Zumaiaiko herritarren egoera fisikoa, belaunaldien arteko harremanak.

Zumaiaiko zerbitzuak.

Irisgarritasuna.

Zaintzaren zein aspektu ezagutzea interesgarri zen hausnartu ostean, diagnostikoa landu zuen, hainbat informazio iturri kuantitatibo eta kualitatibo ustiatuaz. Elhuyar izan da lanketa hori aurrera eramanean duena 2023ko ekainetik irailera bitarte eta dokumentu honen hurrengo atarian jasotzen dira bildutako informazio eta ondorio nabarmenenak. Horiek oinarri hartuta, etorkizunean, helburua izango da Zumaian zaintzaren gaia ikuspegi estrategikoz lantzeko ekintza-plana diseinatzea.

2 HELBURUAK

Diagnostiko honen bidez Zumaiako Prebentzio-Mahaiak erdietsi asmo izan dituen helburu nagusienak honakoak dira:

Helburu nagusia

Zumaiako zaintzaren egoeraren argazkia eskaintzea, egungo errealitatea zein den ahalik eta modu zehatzenean ezagutzeko eta etorkizunera begira, errealitate horretatik abiatuta, herritarrek izan ditzaketen beharrei modu efektiboan erantzuteko neurriak modu partekatuan identifikatzea.

Zeharkako helburuak

- Zumaiako herritarren egoera zein den ezagutzea hainbat gairi dagokionez: bilakaera demografikoa, familia ereduak, bakardadea, egoera fisiko eta psikologikoa, psikofarmakoen kontsumoa, komunitateen arteko kohesioa...
- Zumaiako herritarren kasuan zaintza beharrak zein diren ezagutzea eta horiek gaur egun nola asetzen diren aztertzea: ordainduta, ordaindu gabe, zerbitzu publikoen bidez, bide pribatuetatik...
- Egungo zaintza zerbitzuekiko Zumaiako herritarren ikuskera eta aurreiritziak zein diren ezagutzea.
- Egungo egoera hobetzeko Zumaiako herritarrek mahaigaineratu ditzaketen proposamenak zein diren ezagutzea.
- Etorkizunean zaintza sistema komunitario bat antolatzeko eman beharreko pausoak zein diren modu partekatuan identifikatzea.

3 INFORMAZIO ITURRIAK

Diagnostikoaren lanketan bi informazio iturri ezberdin baliatu dira:

Batetik, datu-iturri ofizial kuantitatiboak, hala nola:


- Zumaiako datu demografiko eta sozioekonomiko orokorren estatistikak.
- Zaintza-zerbitzu publikoen inguruko datu eta estatistikak.
- Zumaiako herritarrek eskura dituzten zaintzarako laguntza eta programen inguruko datuak.
- Zumaiako kirol zerbitzu eta azpiegituren erabilera datuak.
- Zumaiako irisgarritasunaren inguruko ikerketak.

Datu horiei dagokionez, informazio ahalik eta eguneratuena aztertzeke saiakera egin da. Hortaz, ahal izan den neurrian, 2023. urteko datuak aztertzeke saiakera egin da eta, ezinezkoa izan den kasuetan, eskuragarri zegoen iturri gertukoena erabili da.

Batetik, Zumaiako herritarrei zuzendutako galdetegia:

Galdetegia **398 pertsonak erantzun dute**, gaztelaniaz edo euskaraz. Zumaian 10.006 biztanle daudela (2022ko datua) kontutan hartzen badugu, herritarren % 4k erantzun du galdetegia. Prebentzio Mahaiak bere buruari 500 herritarren iritzia biltzeko erronka jarri zion, horrela herritarren iritzia %5aren ikuskera biltzeko. Hortaz, bildutako erantzunekin ezin izan da helburu hori bete.

Herritar horien adinari dagokionez, honakoak dira datuak:



Ikusirik zein den Zumaiako herritarren adin-mapa (diagnostikoko 4.1.2. atalean aztertuko da), esan genezake erantzunak bat datozela biztanleen multzo nagusienekin: herritar gehienak 45-49 eta 50-54 adin tartean daude. Desorekak, hala ere, nabarmenak dira:

- 70 urtetik gorako eta 25etik beherako oso herritar gutxi erantzun dute galdetegia (34 pertsona guztira).

- Inkesta askoz emakumezko gehiagok (%73) erantzun dute gizonezkoek baino. Biztanleen erroldaren arabera, Zumaiako herritarren % 50,5 da emakumezkoa eta % 49,5, berriz, gizonezkoa.
- Inkesta Zumaian edo Euskal Herrian jaiotako askoz herritar gehiagok erantzun dute, Estatuko beste lurralderen batean (% 3) edo atzerrian (% 3¹) jaiotakoekin alderatuta. Datu estatistikoen arabera, Zumaiako biztanleen % 6k inguru du atzerriko herrialderen batean jatorria.

Hortaz, baieztatu genezake Zumaiako zaintzaren inguruko inkesta erantzuteko prestutasuna izan duten herritarren profila honakoa dela: emakumezko helduak (30 urtetik gorakoak), Zumaian edo Euskal Herrian jaiotakoak. Hori aintzat hartu behar da galdetegiko datuen interpretazioa egiterako garaian.

¹ 3 pertsona Nikaraguan eta bana Aljerian, Argentinan, Brasilen, Finlandian, Hondurasen, Marokon eta Belgikan.


4 ZUMAIAKO HERRITARREN PROFILA

4.1 Zumaiako datu demografikoak

4.1.1. Biztanlegoaren adinaren bilakaera

Zumaiako biztanleriak azken urteotan jasandako bilakaerari erreparatuta, ikus daiteke, orotara, herrian gero eta jende gehiago bizi dela: 236 pertsona gehiago 2018tik 2022ra. Hala ere, datua adin taldeka aztertuta, ikus daiteke 65 urtetik gorako taldean dela bereziki nabarmena gorakada: 2018an 1782 herritar ziren eta 2022an, berriz, 2016 (hau da, 234 gehiago). Hortaz, baieztatu daiteke Zumaia gero eta herri helduagoa dela.

Zumaiako biztanlegoaren bilakaera 2018tik 2022ra, adin taldeka




Iturria: Eustat: Euskal Aeko biztanleria lurralde eremuaren arabera, adin beteko talde handiak, sexua eta aldia.

4.1.2. Herritarren adina

Hala ere, gaur egun zumaiarren adin media 43,3koa da, Urola Kostakoa, Gipuzkoa eta EAEkoarekin alderatuta, baxuagoa. Hortaz, aurreko grafikari lotuta nabarmentzen zen biztanleriaren zehartze progresiboaren intzidentzia, momentuz, Zumaian bareagoa dela baieztatu daiteke.


Zumaiako adin media, Urola-Kosta, Gipuzkoa eta EAEkoarekin alderatuta (2022an)



Iturria: Eustat: Euskal Aeko biztanleriaren batez besteko adina, lurralde-eremuen arabera, sexuari jarraiki.

Udal erroldako datuak aztertuta aurrez aipatutako joera berretsi genezake: zumaiarren gehiengoak gaur egun 40 eta 59 urte bitarteko adina du eta 20 urtetik beherako herritarren kopurua nabarmen da baxuagoa.


Zumaiako biztanleria adin taldeka 2023/01/01an



Iturria: Zumaiako udaleko errolda

Biztanleriaren adinaren datuak generoaren arabera aztertuta, berriz, nabarmena da 60 urteetako langa. Ordura artean gizonezkoak gehiago dira ia adin tarte guztietan (alde nabarmenena 45 eta 49 adin tartean dago). Hortik aurrera, berriz, emakumezkoak dira nagusi, beren kasuan bizi-itxaropena altuagoa denaren seinale.

Zumaiako biztanleria adin taldeka eta generoaren arabera, 2023/01/01an



Iturria: Zumaiako udaleko errolda

4.1.3. Adin-bilakaera: etorkizuneko aurreikuspena


Etorkizunari begira badirudi aurreko grafiketan hautemandako joerak ere errotuko direla:

- Biztanleria gero eta helduagoa izango da: 5-15 urteren buruan gaur egun 40 eta 60 urte bitartean dauden biztanle horiek, gehiengoaren direnak, 65 urte baino gehiago izango dituzte.
- 65 urtetik gorako biztanle gehienak emakumezkoak izango dira.
- Herriko jaiotzak soilik aintzat hartuta, ez da lanerako adin aktiboan 65 urtetik gorako biztanle horien behar guztiak sostengatzeko jende-kopuru nahikorik izango.

Hortaz, baieztatu genezake oraingo biztanleria-zifrak mantentzeko migrazio-mugimenduak klabe izango direla.

Etorkizuneko biztanleriaren bilakaera zein izango den aztertzeko Eustatek bilakaera-proiekzio ezberdinak eginak ditu, egungo joerei, aurreikusitako heriotza-tasei, ugalkortasunari eta migrazio-mugimenduei erreparatuta. Zehazki, 2016-2061 aldirako EAEko eta bertako lurralde historikoetako biztanleria aztertzen duen azkeneko azterketan (2018koa) etorkizunerako sei eszenatoki eraiki dira:

EAEko biztanleriaren bilakaera eta proiektzioa eszenatoki demografiko desberdinen arabera, 1976-2061 artean




Iturria: Eustat. "Biztanleriaren proiektzioak. Emaitzen azterketa" txostena.

Gauzak horrela, egungo sistemari eusteko, migrazioek biztanle asko ekarri beharko lituzketela ikus daiteke. Izan ere, eszenatoki guztien kasuan hazkunde begetatibo negatiboa ikusten da, murriztuz doana, urteko tarte guztietan.

Lurralde historikoetako biztanleriak etorkizunean izango duen bilakaera eszenatoki bakoitzean EAE osorako deskribatutako bilakaeraren antzekoa da oro har. Hala ere, berezitasunak daude biztanleriaren aldaketa-erritmoetan, eta baita adinaren arabera egituren aldaketa-prozesuaren intentsitatean ere.

Lurralde historikoetan jartzen badugu arreta, lehenengo 3 eszenatokien arabera, eszenatoki demografiko hauetan, Arabaren eta Gipuzkoaren kasuan migrazioek ekarritako biztanle kopurua nahikoa izango litzateke jaiotza kopuruaren eta heriotza kopuruaren arteko aldeak eragindako galerak konpentsatzeko, baina Bizkaiaren kasuan ez litzateke nahikoa izango. Migrazioak biztanle berriak ekarriko balitu, "lau" eta "bost" eszenatokietan epe ertain eta luzerako aurreikusten den bezalaxe, Bizkaiko hazkunde naturalak ekarritako galerak konpentsatuko lirateke eta hala, Bizkaiko biztanleriaren beheranzko joera geldituko litzateke mendeko laugarren hamarkadatik aurrera. Hala ere, oraindik ere desberdintasunak egongo lirateke lurralde historiko bakoitzeko hazkunde-erritmoen artean.

Lurralde historikoetako biztanleriak izandako aldaketak 2016an eta 2061ean, eszenatoki demografiko desberdinen arabera




Iturria: Eustat. "Biztanleriaren proiektzioak. Emaitzen azterketa" txostena.

4.1.4. Zumaiarren jatorria

Egungo zumaiarren jatorria zein den aztertuta, ikus genezake 2023an herritarren % 6k zuela atzerriko herrialderen batean jatorria. Horien artean, gehiengoa emakumezkoa zen eta lanerako adina zuten gehienek (18-65 tarteko 457 biztanle).

Atzerrian jaiotako zumaiarren kopurua 2023an




Iturria: Zumaiako udaleko errolda

	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Atzerrian jaiotako zumaiarrak	601	321 (% 53,4)	280 (% 46,6)
18 urtetik beherako atzerrian jaiotako zumaiarrak	116	54 (% 46,5)	62 (% 53,5)
65 urtetik gorako atzerrian jaiotako zumaiarrak	28	15 (% 53,5)	13 (% 46,5)

Herritar horien jatorrizko herrialde ohikoenak honakoak dira: Maroko (118 biztanle), Errumania (75), Kolonbia (56), Venezuela (41) eta Senegal (35). Jatorriak kontinenteen arabera aztertuta, berriz, orotara, **Hego Amerikakoak** dira atzerrian jatorria duten herritar gehienak (285), **Afrikakoak** jarraian (171), **europarrak** ostean (152) eta **Asiakoak** azkenik (19, Pakistan eta Txinakoak).

Herritarren jatorrizko herrialde ohikoenak 2022an



Iturria: Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia

4.2 Herritarren kaudimen ekonomikoa

4.2.1. Biztanleen diru sarrerak


Zumaiako biztanleen diru-sarrerei erreparatuta, 2020. urtean bataz-bestekoa 25.050€koa zela ikus dezakegu.

Datu hori generoaren arabera aztertuta, nabarmena da arrakala: emakumezkoen kasuan 18.496€koa da biztanleko errenta pertsonalaren media eta gizonezkoenean, berriz, 31.811€koa. Hau da, 10.000€ baino gehiagoko aldea dago batzuen eta besteen artean. Egia da 2018tik aurrera emakumezkoen diru-sarreretan igoera hautematen dela eta gizonezkoenean, berriz, beherakada txiki bat. Aldea, ordea, oraindik, nabarmenegia da.

Datu horien atzean dauden arrazoiak anitzak eta konplexuak badira ere, honako ideia nagusiak aipa genitzake arrakala hori azaltzeko:

- **Ordaindu gabeko zaintza lanak** beren gain hartzen dituzten **emakumezkoak askoz gehiago dira** oraindik ere familietan.
- **Feminizatutako lanpostuetako soldatak** oraindik ere, maskulinizatutakoekin alderatuta, **baxuagoak** izaten jarraitzen dute.


Biztanleko errenta pertsonalaren mediaren eboluzioa Zumaian generoaren arabera 2017tik 2020ra



Iturria: Euskal AEko batez besteko pertsona-errenta (euroak) per lurralde eremua, errenta mota, sexua eta aldia

Zumaiako datuak EAE, Gipuzkoa eta Urola Kostakoekin alderatuta, errenta-media altuagoa dela nabarmentzen da. Horren arrazoia da Zumaiako gizonezkoen diru-sarrerak ingurukoena baino altuagoak direla: Urola Kostan baino 2.000€ gehiago; Gipuzkoan baino 2.800€ gehiago; eta EAEn baino 4.400€ gehiago. Emakumezkoek, ordea, Gipuzkoako eta eskualdeko gainerakoek baino diru gutxiago irabazten dute Zumaian.

Zumaiako errealitatearen alderaketa (2020ko datuak) Urola Kosta, Gipuzkoa eta EAerekin





Iturria: Euskal AEko batez besteko pertsona-errenta (euroak) per lurralde eremua, errenta mota, sexua eta aldia

Diru sarreren batzaz-besteko datuak aztertzeaz gain, ordea, **gehien eta gutxien irabazten duten biztanleen kopuruak** ezagutzea ere beharrezkoa da, kaudimen ekonomiko altua duten biztanleen eta egoera zaugarrian (eta, beraz, zaintza behar espezifikagoekin) bizi direnen aldea zein den ezagutzeko. Horretarako, galdetegia erantzun duten 398 herritarren erantzunak hartu ditzakegu erreferentzia modura. Horien arabera:

- Herritarren % 31k 15.400€ baino gutxiagoko diru-sarrerak lituzke.
- Datuak generoaren arabera aztertuta, 15.400€tik behera jasotzen dituzten herritar horien artetik, gehiengoa emakumezkoa da. Esaterako, 38 herritarrek diote 8.000€ baino gutxiago irabazten dutela. Horien artetik, 34 emakumezkoak dira.
- Herritarren % 6k, berriz, 45.000€ baino gehiagoko diru sarrerak lituzke. Kasu horretan, gehienak (24tik 13) gizonezkoak dira (desoreka ulertzeko aintzat hartu behar da inkesta askoz emakumezko gehiagok erantzun dutela).


Galdetegiko erantzunak: Zumaiako herritarren urteko diru-sarrera netoak, orokorrean, eta emakumezkoen diru-sarrerak



Iturria: galdetegia

Gainera, Zumaian diru sarrera baxuenak dituzten herritarren errealitatea hobeki ezagutzeko, inkestako erantzunnez gain, Zumaiako Udalaren alokairurako diru-laguntza jasotzen duten herritarren eskatzaile kopurua eta horien urteko diru-sarrerak zein diren kontsulta daiteke. Horra xehetasunak:


2020 eta 2022 artean udaleko alokairurako diru-laguntza jaso duten herritarren kopurua, generoaren arabera



Iturria: Zumaiako Udala

*Oharra: 2020. urtean datuak ez dira generoaren arabera bereiztuta jaso.


2021. urtean udaleko alokairurako diru-laguntza eskatu zuten herritarren urteko diru-sarrerak



Iturria: Zumaiako Udala

*Oharra: 2021ean diru laguntzaren 2 modalitateak aintzat hartuta (18-35 adin tarteari dagokiona eta 36 urtetik gorako herritarrei zuzendutakoa) eskatzaileak, guztira, 68 pertsona izan ziren.

4.2.2. Zumaiako udalak banatu edo kudeatutako diru laguntzak jasotzen dituzten pertsonak

Diru-sarrera minimoak ez dituzten herritarren kasuan, bizitzeko beharrezkoak diren zerbitzuetara sarbidea bermatzeko Zumaiako udalak hainbat diru laguntza programa propio ditu. Horrez gain, beste erakunde batzuek banatzen dituzten hainbat laguntza ere kudeatzen ditu. Honakoak dira programa horiek zehazki: 

➤ Gizarte larrialdietarako laguntza (GLL/AES)


Dirulaguntza moduan ematen den laguntza da. Gizarte bazterkeriarik gerta ez dadin, edo halako bazterkeriak konpontzeko, behar-beharrezkoak diren gastuak ordaintzeko nahiko baliabiderik ez dutenen herritarrei dago zuzenduta.

Honako gastuak laguntzeko jaso daiteke laguntza hau:

Alokairu gastuetarako	275€ hilean/3.300€ urtean
Kreditu interesen eta amortizaziorako	250€ hilean/3.000€ urtean
Etxebizitzako mantentzerako	900€/urtean
Etxebizitzako energiarako	1.500€/urtean
Altzarien gastuetarako	1.850€/urtean
Etxebizitza konpontzeko gastuetarako	1.850€/urtean
Oinarrizko beharretarako	1.850€/urtean
Aurreko zorpetze gastuetarako	3.000€/urtean

2022. urtean, Zumaian, **66 familiak (148 pertsonak, guztira)** jaso zuten GLL laguntza.

Zumaian 2022an GLL jaso zuten pertsona kopurua, adinaren arabera



Iturria: Gizarte Zerbitzuak memoria 2022

➤ **Udalaren gizarte arloko dirulaguntza**

Laguntza hau jasotzen duten Zumaiarrek eta beren bizitza unitateek ez dituzte betetzen Gizarte Zerbitzuaren sisteman dauden prestazio ekonomikoen baldintzak, eta horren ondorioz, behar duten babesik gabe aurkitzen dira. Herritar horiei alokairua, haurtzaindegi zerbitzua edo psikomotrizistaren gastuak ordaintzen laguntzeko, Zumaiako udalak laguntza hau du martxan.

2022an 5 pertsonak jaso zuten.

Iturria: Gizarte Zerbitzuak memoria 2022

➤ **Banakako dirulaguntza bereziak brankako apartamentuetako onuradunei**

Brankako apartamentuen araudiaren arabera, erabiltzaile batek bere diru sarrerengatik ezin badie ostatu gastuei aurre egin, udalari dirulaguntza bat eskatzeko eskubidea du.

2022. urtean, 18 apartamentuetan bizi ziren herritarren artetik 11k eskatu zioten udalari laguntza.

Iturria: Gizarte Zerbitzuak memoria 2022

➤ **Droga mendekotasunen eta beste mendekotasun psikologikoen tratamenduetara joateko dirulaguntza**

Drogen mendekotasuna edo beste zailtasun edo mendekotasun batzuen tratamenduetara joaten diren pertsonen, garraiorako laguntza ekonomikoa ere eskaintze die udalak.

Azken 3 urteetan (2020tik) ez da horrelako laguntzarik banatu.

Iturria: Gizarte Zerbitzuak memoria 2022

➤ **Familia ugariei hobariak Zumaian**

Azkenik, herritarrek, orokorrean, kaudimen ekonomikoari lotuta izan ditzaketen problematikak kudeatzen laguntzeko, Zumaiako udalak familia ugariei udal tasetan hobariak eta tasa-salbuespenak ere eskaintzen dizkie.


Hobari horiek emateko irizpideak familia bakoitzaren seme-alaba kopuruaren eta diru-sarreraren arabera dira. 2023. urteko udal ordenantza fiskaletan Zumaiako udalak hobariak banatzeko irizpideak aldatzeko erabakia hartu zuen, hobariren bat jasotzeko diru-sarrera “langa” 80.000€tara mugatuz (lehenago 90.000 zen) eta diru-sarrerak ezberdin taldekatuz:

2022ra arte	0 €-24.000,00 €	24.000,01 €-50.000,00 €		50.001,00 €-90.000,00 €
2023tik aurrera	0 €-20.000,00 €	20.000,01 €-40.000,00	40.000,01 €-60.000,00 €	60.000,01 €-80.000,00€

Familiek ordaintzeari utzi behar dioten kopuruari dagokionez (%tan), ezberdina da zergaren edo tasaren arabera.


Honakoak dira 2022 eta 2023 urteetan Ondasun Higiezinaren Zergari eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergari dagokionez, Zumaiaiko udalak familia ugariari onartutako hobari-kopuruak:

Zumaiaiko udalak onartutako hobariak 2022 eta 2023an



Iturria: Zumaiaiko udala

Zumaiaiko udalak onartutako hobarien bilakaera 2022 eta 2023an



Iturria: Zumaiaiko udala

4.2.3. Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen prestazioak

Udalak emandako laguntzez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak beste honako prestazioak ere kudeatzen ditu:

➤ **Kotizatu Gabeko Pentsioa (KGP/PNC)**

Laguntza hori erretiratzeko edo baliaezintasun egoeran eta premia egoeran dauden herritar guztiek, kotizatu ez badute edota kotizaziopeko pentsio bat jasotzeko eskubidea izateko adina kotizatu ez badute jaso dezakete.

Pentsio honen onuradunek Osasun Asistentziaren eskubidea dute pentsionista modura.

2022an, guztira, 24 zumaiarrek jaso zuten, 13 emakumezko eta 11 gizonezkoak.

➤ **Gizarte Ongizate Funtseko Pentsioa (GOF/FBS)**

Aldian behingo dirulaguntza bat da, adinean aurreratuak egoteagatik edo elbarritasunagatik lanean hasterik ez duten eta bizitzako oinarritzko beharrak asetzeko bestelako diru sarrerarik ez duten herritarrei zuzendutakoa.

Dirulaguntza hau bateraezina da kotizatu gabeko pentsioarekin.

2022an, Zumaian, guztira 2 herritarrek jaso zuten (gizonezko 1ek eta emakumezko beste batek).

4.2.4. Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen prestazioak

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, bere eskumenekoak dira beste honako laguntzak:

➤ **Diru-sarrerak bermatzeko prestazioaren (RGI gazteleraz) onuradunak Zumaian**

Diru sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE), aldizkako dirulaguntza subsidiario bat da. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritako erroldan gutxienez urtebete egonik, eta beren elkarbizitza unitatearen irabaziak eta ondarea kontuan hartuta, oinarritzko behar izanei eta gizarteratzeko eta lan merkatuan sartzeko prozesuaren ondorioz sortutakoei, aurre egiteko nahikoa diru baliabide ez dutenei zuzendua.


Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta 2013 urtetik aurrera Lanbidek tramitatu eta ebazten du

2022an, Zumaian, guztira 226 biztanle izan ziren Diru-Sarrerak Bermatzeko Prestazioaren onuradunak.

Honakoak dira laguntza hori jasotzen zuten pertsonen hileroko jasotako diru-kopuruak 2022 urtean:


Bizikidetzaren unitatea	Kopurua
Adinez nagusia den pertsona bat	727,41€
Adinez nagusiak diren 2 pertsona	934,05€
Adinez nagusia den pertsona bat eta adin txikiko beste bat	986,96€
Adinez nagusiak diren 3 pertsona	1033,24€
Adinez nagusiak diren bi pertsona eta adin txikiko beste bat	1033,24€
Adinez nagusia den pertsona bat eta adin txikiko beste bi	1086,15€
Adinez nagusiak diren 4 pertsona	1033,24€
Adinez nagusiak diren 2 pertsona eta adin txikiko beste 2	1033,24€
Adinez nagusia den pertsona bat eta adin txikiko hiru	1086,15€
Adinez nagusiak diren 2 pertsona eta adin txikiko hiru	1086,15€
Adinez nagusia den pertsona bat eta adin txikiko lau	1086,15€
Pentsiodun bat	834,59€
Bi pentsiodun	1043,24€
Hiru pentsiodun	1126,70€

2022an DSBPa jasotzen zuten pertsonak, generoaren arabera




Iturria: Lanbide

2022an DSBPa jasotzen zuten pertsonak, jatorriaren arabera



Iturria: Lanbide

2022an DSBPa jasotzen zuten pertsonak, adinaren arabera




Iturria: Lanbide

➤ **Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osagarria (EGPO/PCV)**

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta osatzeko bestelako aldizkako prestazio ekonomiko hau ere eskuragarri du Eusko Jaurlaritzak, titularren ohiko etxebizitza edo bizitokiaren alokairu gastuari aurre egiteko.

Azken 5 urteetan Eusko Jaurlaritzako EGPO jaso duten zumaiarren kopurua hilabeteka



Iturria: Gizarte Zerbitzuak memoria 2022


4.3 Zumaiako familia ereduak

4.3.1. Bizikidetzaren unitateetako kideak

Zumaiako Udaleko errodako datuak aztertuta, honakoa baieztatu genezake:

- Herriko bizikidetzaren unitate ohikoenetan, orokorrean, pertsona 1 edo 2 bizi dira.
- Gainerakoan, 3 edo 4 kideko familiak dira nabarmentzen direnak.
- 5 kideko zenbait bizikidetzaren unitate ere badaude (228). 6 kideko beste 35 ere bai eta 7 kideko 19.
- Hortik gorako kasuak, anekdotikoak dira ia.


Zumaiako bizikidetzaren unitateetako kide kopurua 2023an



Iturria: Zumaiako udala

Galdetegia bete duten pertsonen kasuan ere, joera orokorra bat dator datu estatistikoek islatzen dutenarekin: herritarren gehiengoa 4 (% 33), 2 (% 28) edo 3 (% 21) kideko bizikidetzak-unitateetan bizi da.

Galdetegia erantzun duten herritarren bizikidetzak-unitateetako kide kopurua 2023an



4.4 Bakardadea Zumaian

4.4.1. Zumaian bakarrik bizi diren pertsona kopurua

Erroldako datuen arabera, 2023. urtean 1051 pertsona dira Zumaian bakarrik bizi direnak.

Inkesta erantzun duten herritarren kasuan, berriz, 30 pertsonak adierazi dute bakarrik bizi direla. Datu hori adinaren eta generoaren arabera aztertuta, honakoa da emaitza:

- Bakarrik bizi direla baieztatu duten 30 pertsonen artetik, 21 emakumezkoak dira.
- Horien artean:
 - o Pertsona 1ek 18 eta 25 arteko adina zuen.
 - o 5 pertsonak 25 eta 30 arteko adina.
 - o 7 pertsonak 31 eta 40 arteko adina.
 - o 4 pertsonak 41 eta 50 arteko adina.
 - o 4 pertsonak 51 eta 60 arteko adina.
 - o 4 pertsonak 61 eta 70 arteko adina.
 - o Eta 5 pertsonak 70 urte baino gehiago.

4.4.2. Hautatu gabeko bakardadea Zumaian

Zumaiako 398 herritarrek erantzun duten inkestan, 43 pertsonak erantzun dute egunerokoan bakarrik sentitzen direla (38 emakumek eta 5 gizonek). Adinaren arabera, honakoak dira datuak:

Adin-tartea	Bakarrik sentitzen direla baieztatu duten pertsona kopurua	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Adin-tarte bakoitzeko erantzun kopuruaren %
18-25	6	6	0	40,0
25-30	5	5	0	13,9
31-40	12	11	1	16,0
41-50	9	9	0	8,1
51-60	6	5	1	6,3
61-70	3	1	2	6,4
70+	1	0	1	5,3

Jatorriaren arabera, berriz, bakarrik sentitzen direla baieztatu duten herritarren artean:

- 4 pertsonak Estatuaz kanpoko beste herrialde batean jatorria zutela baieztatu zuten, 31 eta 60 urte arteko emakumezkoak denak².
- Gizonezko batek adierazi du Euskal Herritik kanpoko Estatuko beste herriren batean zuela jatorria.
- Galdetegia erantzun duten gainerako 39 pertsonak Zumaian edo Euskal Herriko beste herri batean jaiokoak dira.

Erantzun hori eman dutenei, pertsona horiek arrisku egoeran ote dauden aztertzeko bestelako galdera batzuk ere egin zaizkie, Los Angeleseko Unibertsitateak (UCLA) sortutako "Bakardadearen eskalaren³" arabera neurtzeko bakardade horrek zenbateraino dakarren arrisku egoera. Zehazki, galderak honakoak izan dira:

- Inguruko jendearekin sintonizatzen dut (ondo konpontzen naiz)
- Konpainia falta zait
- Inorekin ezin dut kontatu
- Bakarrik sentitzen naiz
- Lagun talde bateko kide sentitzen naiz
- Gauza asko ditut inguruan dudan jendearekin komunean
- Ez dut inorekin konfiantzarik
- Inguruko pertsonak ez dituzte nire interes eta ideiak partekatzen
- Pertsona irekia naiz (kanporakoia)
- Pertsona batzuegandik hurbil sentitzen naiz
- Baztertuta sentitzen naiz, besteek ahaztuta
- Nire gizarte harremanak azalekoak dira
- Inork ez nauela ondo ezagutzen pentsatzen dut
- Besteengandik isolatuta sentitzen naiz
- Konpainia behar dudanean, aurki dezaket
- Pertsona batzuek benetan ulertzen naute


² Kontutan hartzekoa da galdetegia erantzun duten herritarren artean Estatuaz kanpoko beste herrialde batean jatorria dutela 12k aitortu dutela.

³ Informazio gehiagorako: https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/97430/1/RevPsicolSalud_6_1_03.pdf

- Horren bakartuta sentitzeak zorigaitzoko sentiarazten nau.
- Jendea nire inguruan dago, baina ez dut uste nirekin dagoenik
- Pertsona batzuekin hitz egin dezaket eta haiekin komunikatu naiteke
- Beharra sentitzen badut, pertsona batzuegana jo dezaket

Indize hori jasotako erantzunei aplikatuta, honakoak dira emaitzak:

Bakardadearen eskalan jasotako puntuazioak




Iturria: galdetegiko erantzunak.

Indizean gero eta puntuazio altuagoa jasotzeak adierazi nahi du orduan eta arrisku egoera handiagoan dagoela pertsona hautatu gabeko bakardadea jasateko. Gauzak horrela, galdetegia erantzun duten herritarren artean 23 (% 53,4) leudeke indizeko puntuaren erdiaren gainetik eta 5 egoera bereziki zaurgarrian (60 puntutik gora), horrek dakartzan arrisku-egoeraren bat pairatzen:

arazo psikopatologikoen ondorioz trebetasunak hondatzea, motibazioa galtzea, esperientzia desatseginak pairatzea (deserrotzea, gizarte bazterketa), gizarte-laguntza defizita, estresarekin lotutako gaixotasun eta nahaste psikopatologikoeiko zaugarritasuna...

Honakoa da 50 puntutik gora dauden herritar horien profila:

Bakardadearen eskalan egoera zaugarrienean dauden herritarren profila: generoa, adina, jatorria



Iturria: galdetegia

5 HERRITARREN EGOERA FISIKO ETA PSIKOLOGIKOA


5.1 Zumaiako herritarren egoera fisikoa

5.1.1. Ariketa fisikoa egiteko herritarren ohiturak

Herritarren egoera fisikoari dagokionez, zumaiar gehienen artean ariketa fisikoa eta kirola osasuna zaintzeko eta prebentziorako tresna eraginkorra direnaren inguruko kontzientziazio maila altua dela baieztatu genezake. Izan ere, inkesta erantzun duten herritarren artean, gehiengo zabalak (% 81) erantzun du astean behin, gutxienez 30 minutuz, ariketa fisikoa egiteko ohitura baduela. Erantzunen artean, herritarrek honako jarduerak egiten dituztela aipatu dute:

Ariketa mota	Aipamen kopuruak
Arrauna	1
Zumba	1
Indoor arrauna	1
Bizikeleta	1
Futbola	1
Tenisa	1
Cross training	1
Boxeoa	1
Eliptika	1
Mendian ibili	1
Fitness	1
Oinezko martxa	1
Crossfit	1
Padel tenisa	1
Taldeko kirola	1
Ruloa	1
Entrenamendu posturala	1
Spinning	1
Baratza	2
Pelota	2
Gimnasia	2
Piragua	2
Kardio-ariketak	3
Luzaketak	3
TRX	3
Trekinga	3
Estiramentuak	4
Bizikleta estatikoa	6
Dantza	8
Indar ariketak	10
Gimnasia	10
Gimnasioa	10
Paseatzea	13
Yoga	20
Pilates	21
Igeriketa	24
Mendia	30
Bizikleta	34
Korrika	51
Ibili	160

Galdetegia erantzun duten herritarrek egiten dituzten 10 jarduera-fisiko ohikoena




Iturria: galdetegia

Horrez gain, herrian ere bada kirol elkarte ugari, jarduera anitzak garatzen dituztenak:

Elkartea	Jarduerak	Kirolari/bazkide kopurua
ANADE, EHIZA ETA ARRANTZA	Ehiza eta arrantza	44
ZUMAIAKO TXIRRINDULARI ELK.	Txirrindularitza	47
ZUMAIAKO TRIATLOI TALDEA	Triatloia	48
ZUMAIAKO KIROL ELKARTEA	Pala egokitua	50
	Zesta	
	Esku-pilota	
	Pala	
PULPO ESKUBALOI ELKARTEA	Eskubaloia	223
INDA-MENDI M.B.	Mendia	316
ZUMAIAKO FUTBOL TALDEA	Futbola	242
ZUMAIAKO TELMO DEUN ARRAUN KIROL ELK.	Arrauna	131
ZUMAIAKO UROLA ITSAS ADAR PIRAGUISMO	Piraguismoa	80
ZUMAIAKO ITZURUN SURF KIROL ELK. (ZISKE)	Surfa	100
OLARRU SUB UR AZPIKO IHARDUEREN K.E.	Buzeoa	53
ZUMAIAKO SANTIXO NAUTIKA ELK.	Kirol nautikoak	Daturik ez
CUZUMA BOX KIROL ELKARTEA	Boxeoa	19
TAOSA IGERIKETA KLUBA	Igeriketa	5
KBI ZUMAIAKO XAKE KLUBA	Xakea	14

5.1.2. Kirol instalazio publiko eta pribatuak: kokapena

Kirola eta ariketa fisikoa egiteko, Zumaiako herritarrek badute hainbat azpiegitura herrian bertan, hala nola:




Horiez gain, herrian ere badira beste hainbat gimnasio pribatu ere, herritarrei entrenatu eta jarduera fisikoak egiteko aukera eskaintzen dietenak.

5.1.3. Kirol instalazio publiko eta pribatuen erabilera datuak, kopurua, generoa, jarduera fisikoa, erabilera maiztasuna eta adin-tartearen arabera.


Kirol instalazio publikoen erabilerari dagokionez, honakoak dira datuak:

Zumaiako kirol zerbitzuko bazkideak 2019 eta 2022 artean (urteroko urtarrilaren 1ean), generoaren arabera



Iturria: Zumaiako Udala

Zumaiako kirol zerbitzuko bazkideak 2019 eta 2022 artean (urteroko urtarrilaren 1ean), adinaren arabera



Iturria: Zumaiako Udala

Kirol instalazio pribatuei dagokienez, berriz, diagnostikoaren egikaritzea prozesuan ez da jaso horietako erabiltzaile kopuruen inguruko xehetasunik.


5.1.4. Ariketa fisikoa egiteko zailtasunak, zaintza lanek baldintzatuta

Hala ere, ariketa fisikoa egitearen gaineko kontzientzia altua bada ere, zaintza lanak egin beharra horren baldintzatzaile argia da. Inkestaren arabera:

- Zaintza-lanak egin beharrak egoera fisikoa kaltetu diela baieztatzen dute zaintza-lanen bat (eskoletan haur txikiak dituzten gurasoak, eguneko zentroetan senitartekoak dituzten pertsonak...) beren gain duten herritarren %43k (emakumezkoen kasuan, % 48k baieztatzen du hori).
- Horrez gain, zaintza-lanak beren gain dituzten herritarren % 34k baieztatzen du egunerokoan jarduera fisikoren bat egitea oztopatze diela lan horiek egin beharrak (emakumezkoen kasuan, % 38k baieztatzen du hori).

Azkenik, zaintzaileei galdeginda egunero zenbat denbora libre duten berentzat (gustuko duten ekintzaren bat egiteko, lasai egoteko, ezer ez egiteko...) honakoak dira emaitzak, generoaren arabera:

Denbora libre kopurua egunerokoan, generoaren arabera



Iturria: galdetegia

5.2 Zumaiako herritarren kontsumo-ohiturak

5.2.1. Zumaiako herritarren droga kontsumo datuak: alkohola, tabakoa, kanabisa...

Zumaiako herritarren droga kontsumo ohiturak zein diren xehetasunez ezagutzea konplexua da, ez baitago horren inguruko estatistikarik.

Errealitatearen argazki bat egiteko, diagnosi honen baitan, bi informazio iturritako xehetasunak bildu ditugu:


Batetik, **Zumaiako Prebentzio-Mahaiak 2019an egindako alkohol kontsumoaren inguruko galdeketa**.

Kasu horretan, guztira 112 herritarrek erantzun zuten galdetegia (64 emakumezko eta 47 gizonezko), honako tokietan: Udaletxean (2), Alondegian (8), turismo bulegoan (1), Brankan (26), osasun zentroan (21), Zumaiena ikastetxean (1), Oikiako guraso elkartearen (15) eta zumaia.eus webgunean (29k euskaraz eta 9k gazteleraz).

Orokorrean, inkesta erantzun zuten herritar gehienek aitortu zuten egunerokotasunean alkohola kontsumitzen dutela (48 herritar, % 52) eta, gainerakoen kasuan, egunerokotasunean ez bada ere, asteburu eta festa garaian alkohola kontsumitzen dutela aitortu zuten (64 herritar, % 58).

Alkohola kontsumitzeko ohiturari dagokionez, egunerokoan, momenturen batean, alkohola edateko ohitura zuela aitortu zuten herritarren gehiengoak ez zuen seme-alabarik (% 38). Guraso zirenen kasuan berriz, gero eta seme-alaba helduagoak izan, alkohol kontsumoa orduan eta baxuagoa zela adierazi zuten.


Zumaiako herritarren alkohol kontsumo-ohiturak: kontsumitzaileen profila



Iturria: Prebentzio-Mahaiaren alkohol kontsumoaren inguruko galdeketa (2019)

Gainerakoan, inkesta erantzun eta alkohola edaten zutela aitortu zuen herritarren gehiengoak adierazi zuen asteburuetan edaten zuela alkohol gehien, arratsaldez, baina baita goizez eta gauzez ere. Festa egunetan ere, goiz, arratsalde zein gauzez, askok aitortu zuten alkohola edateko ohitura zutela.


Zumaiako herritarren alkohol kontsumo-ohiturak: asteko eta eguneko zein momentutan edaten duten



Iturria: Prebentzio-Mahaiaren alkohol kontsumoaren inguruko galdeketa (2019)

Beste alde batetik, kontsumitzeko ohitura zuten alkohol kopuruaren inguruan galdeginda, gehienek (% 49) alkohola edaten zutenean 1-2 edari kontsumitzen zutela adierazi zuten. Gainerakoan, % 35ek esan zuten 3-5 edari kontsumitzen zituela, % 12k 6-9 eta % 4k 10-19 artean.


Zumaiako herritarren alkohol kontsumo-ohiturak: edari kopurua



Iturria: Prebentzio-Mahaiaren alkohol kontsumoaren inguruko galdeketa (2019)

Azkenik, kontsumitutako alkohol motari dagokionez, nahiko aldakorra da edaria momentuaren arabera: arratsaldeetan garagardoa da nagusi; gauean garagardoa eta konbinatuak; goizean ardoa; eta jatorduetan sagardoa.


Zumaiako herritarren alkohol kontsumo-ohiturak: edari motak eguneko momentuaren arabera



Iturria: Prebentzio-Mahaiaren alkohol kontsumoaren inguruko galdeketa (2019)

Asteko garaiari erreparatuta, berriz, asteburuetan garagardoa, ardoa eta sagardoa dira nagusi; astegunetan ardoa eta garagardoa; eta festa egunetan garagardoa, ardoa, konbinatuak eta sagardoa.

Zumaiako herritarren alkohol kontsumo-ohiturak: edari motak asteko egunaren arabera




Iturria: Prebentzio-Mahaiaren alkohol kontsumoaren inguruko galdeketa (2019)

Beste alde batetik, **Deustuko Unibertsitateko drogomenpekotasunaren institutuak bost urtean behin EAE mailan “Drogak eta eskola” ikerketa** ere egin ohi du eta bertako emaitzak ere kontsultatu ditugu.

Azken ikerketa 2022. urtekoa da eta, bertan, 12 eta 22 adin tarteko gazteen kontsumo ohiturak zein diren neurtzen da, 88 ikastetxe publiko eta pribatutako 6.188 ikasle galdetegi baten bidez elkarrizketatuta (DBH 1-4, Batxilergoa 1-2, Lanbide Heziketa eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak).


Ikerketa horren emaitzak ez dira herriz herri argitaratzen. Dakiguna da, egindako elkarrizketa guztien artetik, 2040 Gipuzkoan egin zirela. Hortaz, ezin jakin genezake zein den Zumaiaiko gazteen errealitate zehatza; bai, ordea, Autonomia Erkidegoko argazki orokorra, Zumaiaiko panoramaren berri eman diezagukeena. Honakoak dira bertatik ondorioztatutako datu esanguratsuenak:

EAEko 12-22 adin tarteko gazteek kontsumitzen dituzten drogak, 2017 eta 2022 artean




Iturria: "Drogas y escuela X. ikerketa" (Drogamenpeketasunen Deustuko Institutua).

EAEko 12-22 adin tarteko gazteek kontsumitzen dituzten drogak 2022 urtean, generoaren arabera



Iturria: "Drogas y escuela X. ikerketa" (Drogamenpeketasunen Deustuko Institutua).

EAEko 12-22 adin tarteko gazteek kontsumitzen dituzten drogak 2022 urtean, generoaren arabera




Iturria: "Drogas y escuela X. ikerketa" (Drogamenpeketasunen Deustuko Institutua).

5.2.2. Zumaiako herritarren psikofarmakoen kontsumoa

Bestelako droga batzuekin gertatzen den bezalaxe, Zumaiako herritarren psikofarmakoen kontsumoa zein den xehetasunez ezagutzea ere ariketa konplexua da, oso. Izan ere, konfidentzialtasun arazoak direla medio, ez da erraza datuak eskuratzea.

Inkesta erantzun duten herritarrei dagokienez, egunerokoan psikofarmakoak kontsumitzen dituztela baieztatzen du % 13k. Arrazoiak honakoak dira: lotarako arazoak dituztelako; antsietatea edo estresa pairatzen dutelako; depresioa dutelako...

Psikofarmakoen kontsumoa Zumaiako herritarren artean




Iturria: galdetegia

Generoaren arabera, bada alderik: emakumezkoen kasuan % 15ak baieztatzen du psikofarmakoak hartzen dituela egunerokoan eta gizonezkoen kasuan, berriz, % 7k.

Gazteen kasuan, berriz, baiezta genezake nabarmen egin duela gora azken urteotan psikofarmakoen kontsumoak, Deustuko Unibertsitateko drogomenpeketasunaren institutuak bost urtean behin EAE mailan egiten duen “Drogak eta eskola” ikerketak aditzera ematen duenez:

EAEko 12-22 adin tarteko gazteen psikofarmakoen kontsumoaren eboluzioa




Iturria: “Drogas y escuela X. ikerketa” (Drogamenpeketasunen Deustuko Institutua).

5.3 Zumaiako herritarren lan baldintzak

5.3.1. Langabezia datuak


Langabezia datuei dagokienez, 2021etik aurrera hiruhileko bakoitzean beherakada nabarmena izan da, 2022ko urte bukaeran langabezia-tasa % 7,1ekoa zelarik (348 pertsona langabezia).

Zumaiako langabezia-tasaren eboluzioa 2021 eta 2022 urteetan (%-tan)



Iturria: Gizarte zerbitzuak memoria 2022

Zumaiako langabetu kopurua 2018tik eta 2022ra



Iturria: Gizarte zerbitzuak memoria 2022

Datu horiek ez datoz guztiz bat inkesta erantzun duten herritarrek emandako erantzunekin: 18 eta 60 adin tarteko herritarren %11k adierazi du gaur egun aktiboki ez duela lanik egiten. Kasu honetan, 18-25 adin tarteko gazteen erantzunak datuak (%40ak dio ez duela aktiboki lanik egiten) eta 31-40 adin tartekoak (%15ek dio ez duela aktiboki lan egiten) dira langabezia egoera pairatzen dutenak.

Alde hori azaltzeko, kontutan hartu behar dugu inkesta, gehienbat, emakumezkoek erantzun dutela eta haiek direla kaudimen ekonomiko baxuena dutenak (txosteneko 4.2.1. atala) eta ordaindu gabeko zaintza lan gehien beren gain hartu behar izaten dituztenak (txosteneko 6.2. atala).


Azkenik, aktiboki lanean daudela baieztatu duten herritarren kasuan, gehiengo zabalak (% 90) besteren kontura egiten du lan eta % 10a autonomia da.

5.3.2. Zumaiako herritarren asebetetze maila beren lan-baldintzekiko

Lan-baldintzekiko asebetetzeari dagokionez, galdetegia erantzun duten herritarren % 58k adierazi du bere lan-ordutegiarekiko gustura edo oso gustura dagoela (% 7k batere gustura ez dagoela dio); % 56k soldatarekin gustura edo oso gustura dagoela (%9k batere gustura ez dagoela); eta % 68k lantokiko lan-giroa ona edo primerakoa dela (% 6k dio txarra dela).

Zaintzaileen kasuan, lana eta zaintza lanak kontziliatzeko arazoak sarritan edo batzuetan dituztela baieztatzen dutenak gehiengoa dira:

Egunerokoan zaintza eta lana kontziliatzeko arazoak dituzten Zumaiako herritarrak



Iturria: galdetegia

Lanarekiko asebetetzearen inguruko erantzunak, ordea, generoaren arabera, jatorriaren arabera eta zaintza-lanak beren gain dituztela aitortzen duten herritarren errealitatearen arabera (12 pertsona, guztira) aztertzea beharrezkoa da, egoera zaurgarrienak⁴ norik pairatzen dituzten ikusteko:

LAN ORDUTEGIA	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Zumaian edo Euskal Herrian jaiok	Estatuko gainerako lurraldeetan edo atzerrian jaiok	Zaintzaileen erantzunak	Erantzun orokorrak
Oso gustura	% 13	% 22	% 15	% 0	% 0	% 15
Gustura	% 45	% 39	% 43	% 38	% 33	% 43
Erdizka-gustura	% 35	% 34	% 35	% 54	% 58	% 36
Batere gustura ez	% 7	% 5	% 7	% 8	% 8	% 7

SOLDATA	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Zumaian edo Euskal Herrian jaiok	Estatuko gainerako lurraldeetan edo atzerrian jaiok	Zaintzaileen erantzunak	Erantzun orokorrak
Oso gustura	% 11	% 20	% 14	% 0	% 0	% 13
Gustura	% 46	% 36	% 44	% 23	% 33	% 43
Erdizka-gustura	% 33	% 39	% 33	% 54	% 17	% 34
Batere gustura ez	% 11	% 5	% 9	% 23	% 50	% 9

LAN GIROA	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Zumaian edo Euskal Herrian jaiok	Estatuko gainerako lurraldeetan edo atzerrian jaiok	Zaintzaileen erantzunak	Erantzun orokorrak
Primerakoa	% 15	% 12	% 14	% 8	% 0	% 14
Ona	% 52	% 61	% 56	% 23	% 33	% 54
Ez ona ez txarra	% 27	% 20	% 24	% 69	% 58	% 26
Txarra	% 6	% 7	% 7	% 0	% 8	% 6

⁴ 10 puntu baino gehiagoko aldeak dauden kasuak (goraka edo beheraka) kolore turkesaz nabarmendu dira.

6 ZAINZA LANAK ZUMAIAN

Hainbat dira Zumaian pertsonen zaintza errazteko eta posible egiteko abian dauden zerbitzuak eta burutzen diren lanak. Horietariko gehienak instituzio publikoek sustatu eta finantzatzen dituzte, baina badira modu pribatuan eskaintzen/egiten direnak ere, ordainduta edo gabe.

Diagnostikoaren atal honetan, zaintza lanen argazki orokorra zein den ezagutze aldera, honako egituraren arabera aztertuko dugu zein den egungo errealitatea: ordainpeko lanak (zerbitzu publikoak kasu gehienetan) eta ordaintzen ez direnak.

6.1 Ordaindutako zaintza lanak

6.1.1. Zaintzari lotutako udal-zerbitzuen mapa eta kudeaketa-eredua

Zumaiko udalak abian dituen zerbitzu eta programen bidez, hainbat zaintza lan errazten edo bere gain hartzen ditu egun.

Honakoa da udal zerbitzu horien mapa:



Zerbitzu horien inguruan informazioa emateko, sarbidea kudeatzeko edota beharrezko balorazioak egiteko Udalak Gizarte Zerbitzuetako gizarte langileak ditu. Honakoak dira xeheki haien egitekoak:

- Zerbitzu eta prestazioez eta erabiltzailearen eskubide eta betebeharez informatu.
- Pertsonaren eta bere testuinguruaren beharren eta ahalmenen balorazio bat egin eta jarraipena behar duen esku hartze bat baldin bada, hasierako gizarte diagnostiko bat egin, pertsona eta familia interesdunen eta haien laguntza sarearen partaidetzarekin.
- Bere beharrei egokien erantzungo dion prestazio edo zerbitzuetara bideratu.
- Arreta plan pertsonalizatua egin.
- Zerbitzu eta prestazioetara sarbidea artikulatzeko beharrezkoak diren tramitazio, kudeaketa eta koordinazioak egin.

- Herritarrek eduki ditzaketen arreta edo babeseko gizarte beharrak antzematea eta beharrezkoak diren ekintzekin hasi.


Zerbitzu bakoitza aztertuta, berriz, honakoak dira xehetasunak:

Telelaguntza

Etxe barruan gertatzen diren larrialdi egoerei erantzuteko gailua da. Telefono lineari lotuta larrialdi egoeretan berehalako atentzio eskainiko dizun zerbitzua. Arreta zerbitzua eskaintzen da eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan, prestatutako Etengabeko pertsonen ardurapean.

Honakoak dira telelaguntza zerbitzuaren onuradunak Zumaian:

Telelaguntza zerbitzuaren onuradunak 2018 eta 2022 urteen artean, generoaren arabera



Iturria: Gizarte Zerbitzuen memoria 2022

Etxez etxeko laguntza

Norbere etxean eskaintzen den laguntza zerbitzua da, bizi kalitatea hobetzen laguntzeko eta pertsona bere ohiko inguru familiarra eta sozialetik ez ateratzeko.

Zerbitzu honen bidez, laguntza pertsonala eta etxeko lanak egiteko laguntza edo eginbeharren gainbegiraketa eskaintzen zaio adinekoari.

Honakoak dira zerbitzu hori eskaintzen duten **langileen zereginak**:


- Informazioa: Erabiltzaileei beren eskubideei eta zerbitzuari buruzko informazio egokia eta nahikoa eskuratzeko aukera ematea, behar den denboraz eta behar den moduan.
- Jarraipenaren balioespena: Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldian aldiko ebaluazioak egitea, kasuan-kasuan dagokion sakotasunaz.
- Etxeko laguntza: Erabiltzaileei eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa. Laguntza hori bereziki dagokie elikadurari, jantziei eta erabiltzailea bizi den etxeko instalazioen mantentze garbiketari, ongi antolatzen laguntzeko; prestazio honetan sartzen da, halaber, hala dagokionean, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa.
- Elikadurarekin loturikoak:
 - Otorduak antolatzea eta prestatzea, horretarako erabilitako ontzi eta tresnak garbitzea eta jasotzea barne
 - Janaria erostea
 - Erabilitako ontziak eta tresnak garbitzea eta lehortzea
- Jantziekin loturikoak:
 - Arropa etxean garbitzea
 - Arropa lehortzen jartzea
 - Arropa gainbegiratzeko
 - Arropa antolatzea eta gordetzea
 - Arropa etxean lisatzea eta tolestea
 - Arropa erostea
 - Erabili beharreko elementu guztiak prestatzea eta jasotzea
- Etxeko instalazioak mantentzearekin loturikoak:
 - Etxea txukuntzea
 - Gainaldeak produktu egokiekin garbitzea
 - Erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea
 - Hautsa kentzea
 - Zorua garbitzea eta xurgagailua pasatzea
 - Errezelak eta leihoak zabaltzea, etxea aireztatzea
 - Komuna garbitzea
 - Sukaldea garbitzea
 - Leihoetako kristalak garbitzea
 - Zaborra zaintzea eta ateratzea
 - Zerbitzua hasi aurretiko garbiketa orokorra
 - Jabekideen erkidegoko espazioak garbitzea
 - Ohea egitea eta oheko arropa aldatu eta arropa zikina kentzea
- Laguntza Pertsonala. Erabiltzaileei honako jarduera hauek egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa: a) zaintza pertsonalarekin loturiko eguneroko bizitzako

- oinarrizko jarduerak, bereziki, ohetik altxatzea eta oheratzea, norberaren garbitasuna, batetik bestera joatea, jatea edo oinarrizko beste funtzio batzuk; b) ingurunearekiko lotura ahalbidetzen duten jarduera instrumentalak, bereziki, komunikaziokoak (telefonoa erabiltzea, gutunak idaztea...) eta familiarengana eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak. Barne sartzen da, hala dagokionean, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa.
- Zaintza pertsonalarekin loturiko beharrezko eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak, bereziki, ohetik altxatzea eta oheratzea, norberaren garbitasuna, jatea edo oinarrizko beste funtzio batzuk.
 - Mugikortasunarekin eta Ingurunean moldatzearekin loturikoak:
 - Ohetik altxatzeko, oheratzeko edo eserlekutik altxatzeko laguntza, lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego.
 - Etxean nahiz etxetik kanpo batetik bestera mugitzeko laguntza (komunera, gela batetik bestera, eskolara, garraiora, eguneko zentroetara, osasun etxeetara joateko laguntza), lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego.
 - Garbitasun Pertsonalarekin loturikoak:
 - Garbiketa eta higiene pertsonala (lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego; azazkalak moztea, bizarra egitea, ilea garbitzea, azala hidratatzea eta arropak aldatzea).
 - Norberaren zaintzako oinarrizko jarraibideak.
 - Jatearekin loturikoak:
 - Jateko laguntza
 - Edateko laguntza
 - Janaria berotzea
 - Erabilitako tresnak eta ontziak garbitzea eta jasotzea
 - Jantziarekin loturikoak:
 - Janzteko eta eranzteko laguntza
 - Eguneroko arropa prestatzea
 - Jarduera instrumentalak, ingurunearekiko lotura ahalbidetzen dutenak, bereziki, komunikaziokoak (telefonoa erabiltzea, gutunak idaztea...) eta familiarengana eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak.
 - Oro har, aurreko egitekoekin lotura duten aurretiko jarduerak, egiteko horiek gauzatzeko elementuak prestatzea eta/edo haietatik eratorritako jarduerak.
 - Berezi, hala badagokio, edozein eginkizunetarako beharrezko trebetasunen lanketa.
 - Komunitatearekiko harremanarekin loturikoak:
 - Haurtzaindegi, ikastetxe, garraio, eguneko zentro, osasun etxe, komunitate-ekipamendu eta abarretara iristen laguntzea, konpainia-zerbitzuaren eta gainbegiratzearen bitartez.
 - Ingurunearekiko komunikazioarekin loturikoak:
 - Eskariak egiteko, gutunak jasotzeko, gutunen eta abarren edukia ulertzeko laguntza, etxean.
 - Komunikazioa erraztea banketxeekin, osasun etxeekin... (errekurtsoak izapidetzea; dokumentazioa eskatzea eta entregatzea, etab).
 - Osasunarekin loturikoak:
 - Medikuek agindutako botikak (ahotik hartzekoak) erostea, kontrolatzea eta behar bezala hartzen diren gainbegiratzea.
 - Medikuekiko hitzorduen kontrola eta jarraipena.

- Gizarte laguntza: gizarte zerbitzuen berariazko zerbitzua, berezkoa, zeinaren bidez pertsonak aukera duten profesional kualifikatu batekin beren kasa hobeto moldatzeko eta gizarteratzeko laguntza harreman batean parte hartzeko.
 - Erabiltzaileari aukera ematen dio bere egoera aztertzeko, bere autonomia eta gizarteratze maila mantentzeko edo hura garatzeko buruz zer helburu dituen zehazteko eta helburu horiek betetzeko erreferentziako pertsona bat edukitzeko, zeinaren bidez ondorengo laguntza hauek jasoko dituen prozesuan zehar:
 - Instrumentala- (Baliabide eta beste sistema batzuetako zerbitzuetara nahiz laguntzako gizarte eta familia sareetara, lagunak, komunitatera edo harreman sareetara iristeko informazioa, orientazioa eta bitartekaritza).
 - emozionala (kaltea murriztea, sostengua, babes emozionala eta orientazioa krisi egoeretan...).
 - hezkuntzako (eguneroko bizitzako eta gizarteratzea sustatzeko oinarritzko jarduerak, jarduera instrumentalak nahiz jarduera aurreratuak egiteko trebetasunak hartzea, jokabideak aldatzea...).
 - harremani loturikoa (entzute aktiboa, gizarte harremanak eta/edo harreman pertsonalak egiteko edo mantentzeko trebetasunak hartzea, harremanak egiteko aukerak sortzea).
 - Gizarte laguntzaren intentsitatea aldatu egin daiteke pertsonaren beharrezan araberak. Horrela, erabiltzailearen laguntza beharrezanaren intentsitatea aldatzea ahalbidetuko duten ibilbideak planteatu litezke (betiere, kontuan harturik intentsitatea murriztea dela desiragarria).
- Beste jarduera osagarri edo ezohiko batzuk:
 - Higiene arazo larriak dituzten etxeetako garbiketa orokorra.
 - Higiene eta osasungarritasun arazo larriak dituzten etxeak hustea eta garbitzea.
 - Egoera berezietan erantzunez, zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbesteko jotzen diren beste jarduerak batzuk gauzatu ahal izango dira, gizarte langintzako teknikariak hala proposatuz gero eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak jarduerak horiek berariaz baimenduz gero.


Gainerakoan, honakoak dira Zumaiako etxez etxeko zerbitzuaren erabiltzaileen inguruko zenbait xehetasun:

Etxez etxeko zerbitzuaren erabiltzaile kopuruaren eboluzioa 2018tik 2022ra, generoaren arabera




Iturria: Gizarte Zerbitzuen memoria 2022

Etxez etxeko zerbitzuaren erabiltzaileen adina 2022an




Iturria: Gizarte Zerbitzuen memoria 2022

Etxez etxeko zerbitzuaren erabiltzaileen etxebizitza unitateak, 2022an




Iturria: Gizarte Zerbitzuen memoria 2022

Etkez etxeko zerbitzuaren erabiltzaileen profila 2022an



Iturria: Gizarte Zerbitzuen memoria 2022

Etkez etxeko zerbitzuaren erabiltzaileek 2022an jasotako zerbitzu-mota



Iturria: Gizarte Zerbitzuen memoria 2022

Erabiltzaileek zerbitzu bakoitzagatik astean jasotako orduen batezbestekoa	
ETXEKO LANAK	1,45 ORDU
ATENTZIO PERTSONALA	5,9 ORDU
MISTOA	7,69 ORDU

Mendekotasuna edo ezgaitasuna duten pertsonentzat laguntza produktuak

Mendekotasuna edo ezgaitasuna duten pertsoneri zuzendutako laguntza produktuak edota diru laguntzak eskaintzen ditu udalak.

Eguneroko jardueretan beren autonomia eta irisgarritasuna hobetuko dituzten elementu teknikoak eskaintzen dira edo egokitze obrak burutzeko diru laguntzak bideratzen dira.

Honakoak dira 2021 eta 2022 urteetan eskatutakoak:

Produktuak	2021	2022
Dutxa eta komunontziko aulkia	23	21
Bainuontziko eserleku birakaria	4	1
Umeen bainu aulkia	0	1
Komunerako osagarriak	1	3
Bainugela inguruko oztopoak kentzea	15	16
Somier elektrikoa	20	21
Koltxoi artikulatua	18	17
Airezko koltxoia	13	12
Besaulki agontzailea	1	1
Garabia	16	12
Ohe barandak	17	21
Oheoina	0	1
Oheburukoa	0	1
Trapezioa	9	9
Arrapala, plataforma edo eskailera igogailua	1	1
Barruko oztopoak kentzea eta domotizatzea	0	2
Etxe atariko eta eskaileretako moldaketak	1	0
Eskailera igogailua	8	8
Eskailerak igotzeko aulkia	0	1
Gurpil aulki motorduna	0	2
Polipastoa (motora)	0	1
Gurpil aulkia jarrera aldagarrikoa	1	1
Laguntzailearentzako gurpil aulkirako motorra	6	7
Norberak gidatzeko gurpil aulkiarentzako motor sistema	1	0
Scooterra edo antzekoa	3	2
Entzuteko protesiak	11	21
Komunikagailuak eta komunikazio taulak	1	0
Software egokitua	1	0
Ibilgailua egokitzea	0	1
GUZTIRA	171	184

Horrez gain, etxean eta inguruan irisgarritasuna, mugikortasuna eta zaintza bermatzeko, Udalak laguntza produktu batzuk ere baditu (baranda eta aupatzailea, gurpildun aulkia, dutxa eta komunontziko aulkia, taka-taka, termometroa, trapezioa...), Gipuzkoako Foru Aldundira laguntza produktuak eskatu eta eman bitartean eskatzaileari uzteko. 2022. urtean, horiek, 8 pertsonari utzi zizkion.

Sendian programa

Adineko mendeko pertsonak zaintzen dituzten senideentzako laguntzak dira. Honakoak dira eskaintzen diren laguntza-motak eta bakoitzeko erabiltzaileak:

Laguntza psikologikoa: zaintzaileak eta mendekotasuna duten adineko pertsonaren zaintzak sor ditzakeen zailtasunei aurre egiteko banakako laguntza psikologikoa eskaintzen da. 2022 urtean 5 lagunek jaso zuten zerbitzua, 3 emakumek eta 2 gizonek.

Asteburuetako eguneko zentruko zerbitzua: familia giroan astean zehar artatuta dauden mendekotasuna duten adinekoak, eguneko zentroan asteburuetan eguneko zerbitzua jaso dezakete.

Laguntza taldeak: arazo edo egoera antzerakoak bizi dituzten zaintzaileen artean osatutako taldea da, laguntza eraginkorra eskaintzen dien profesional baten zuzendaritzapean. 2022 urtean laguntza taldean 16 zaintzailek hartu zuten parte, 14 emakumezkoak eta 2 gizonezkoak. Horra parte hartzaileen inguruko beste xehetasun batzuk:

Adina	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Zaindutako pertsonarekin harremana
55	1	0	ALABA
59	1	0	ALABA
61	2	0	ALABA/EMAZTEA
64	1	1	ALABA/SENARRA
65	0	1	SENARRA
67	1	0	EMAZTEA
68	1	0	ALABA
71	1	0	ALABA
77	5	0	EMAZTEA
78	1	0	EMAZTEA

Apartamentuak

Eguneko jarduerak egiteko gai diren edo mendekotasun arina duten adinekoei zuzendutako 18 apartamentu daude eskuragarri Branka eraikinean. Etxebizitza egokirik ez duten, bizikidetzeta edo bakardade arazoak dituzten edo merkatuko etxebizitza bat eskuratzeko adina diru ez duten adineko pertsonentzat etxebizitzak dira.

Adinekoari jarraipena eta gainbegiraketa eskaintzen zaio, honako helburuei jarraiki:

- Erabiltzaileak haien komunitatearen ingurunean gera daitezela erraztea.
- Autonomia-maila pertsonala hobetzea, hari eustea edo eta autonomiaz moldatzeko aukera ematen duten trebetasun eta gaitasunak galtzea prebenitzea.
- Bakarrik bizitzen ez uztea.
- Segurtasun-sentimendua hobetzea.
- Bizilekurik ez dutenei ostatu hartzeko aukerak ematea.
- Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska dezaketen beharrian batzuk antzematea.

Zehazki, honako zerbitzuak eskaintzen dira:


- Gainbegiraketa eta jarraipena
- Catering zerbitzua
- Garbitasun eta mantentze zerbitzua
- Bitartekaritza zerbitzua

Erabiltzaileek tasa bat ordaintzen dute bertan bizitzeagatik (ordaintzeko zailtasunak dituztenentzat laguntzak badaude ere). Honakoak dira zenbatekoak:

APARTAMENTU MOTA	TASA APARTAMENTUKO	APARTAMENTU KOPURUA
Bikoteena	442,11 €/hilean	4
Banakakoa A mota	333,50 €/hilean	6
Banakakoa B mota	351,11 €/hilean	6


2022. urtean, guztira, apartamentuetan 23 erabiltzaile bizi izan dira. Horra xehetasun gehiago:

Brankako apartamentuetako erabiltzaileen eboluzioa 2018tik 2022ra, generoaren arabera




Iturria: Gizarte Zerbitzuen memoria 2022

Brankako apartamentuetako 2022. urteko erabiltzaileen adina



Iturria: Gizarte Zerbitzuen memoria 2022

Brankako apartamentuetako 2022. urteko erabiltzaileen egoera zibila



Iturria: Gizarte Zerbitzuen memoria 2022


Eguneko zentroa

Mendekotasun egoeran dauden adinekoei zuzendutako arreta zerbitzua da. Egunean zehar, behar den zaintza jasotzen dute erabiltzaileek, arreta pertsonalizatu baten bitartez: asistentziako zerbitzuak, jolas-jarduerak eta mantentzekoak, osasun zerbitzua, gizarte-arreta...

2022an 27 erabiltzaile izan zituen zentroak, 7 gizonezko eta 20 emakumezko.


Erabiltzaileen adinari eta elkarbizitza unitateari dagokionez, horra zenbait xehetasun:

Eguneko zentroko 2022. urteko erabiltzaileen adina



Iturria: Gizarte Zerbitzuen memoria 2022

Eguneko zentroko 2022. urteko erabiltzaileen elkarbizitza-unitate mota



Iturria: Gizarte Zerbitzuen memoria 2022

Eguneko zentroa urteko egun guztietan dago irekita, abenduaren 25a eta urtarrilak 1a izan ezik. Hiru asistentzia modalitate daude:

- Lan egunekoa: astelehenetik ostiralera.
- Jarraitua: astelehenetik igandera eta jai egunak.
- Sendia programaren bidez: asteburuak eta jai egunak.

Lanegunetan zentroko ordutegia 9:00etatik 17:30etara da eta 20 plaza daude eta asteburu eta jaiegunetan aldiz, ordutegia 10:00etatik 17:00etara da eta 12 plaza daude.

Era askotako jarduerak egiten dira gaitasun fisiko, psikologiko eta sozialari eutsi ahal izateko eta hori sustatzeko. Halaber, garraioa, garbitasuna, jangela eta osasunaren jarraipen zerbitzua eskaintzen da.

Honakoak dira zentroko langileak eta beren funtzio nagusiak:

- Koordinatzailea: zentroko jarduerak planifikatu, antolatu eta gainbegiratu.
- Erizain laguntzaileak: erabiltzailearen garbiketa eta higiene pertsonala egitea; gizarte eta fisioterapia aktibitateetan laguntzea; erabiltzaileari zentroan oinarrizko eguneroko aktibitateetan eta behar dutenei mobilizazioetan laguntzea; janaria jaso eta zerbitzatzea erabiltzaile bakoitzaren dieta errespetatuaz; erabiltzailearen aho medikazioaren administrazioa eta jarraipena egitea; etab.
- Erizaina: sendagileak erabiltzaile bakoitzaren diagnostikoa eta bere lan arloarekin zerikusia duten oharrak ateratzea; jarduera egitarauak eta tratamenduak erabiltzailearen beharretara egokitzea; erabiltzaileak eduki ditzakeen osasun arriskuak baloratu eta koordinatzailea jakinaren gainean jartzea; pastilleroa prestatzea, medikazioa kontrolatzea eta familiei abisatzea stocka bukatzeaz dagoenean; etab.
- Psikologoa: erabiltzaile bakoitzaren sendagile diagnostikotik bere arloarekin zerikusia duen informazioa ateratzea; erabiltzailearen egoera psikologikoa baloratzea (kognitiboa, afektiboa eta jokabidea); etab.
- 5. Tasoc: psikologoarekin batera lan taldeak osatu eta talde bakoitzean lortu beharreko helburuak zehaztu; erabiltzaileen partaidetza, motibazioa; etab.
- Gizarte langilea: zentroko gizarte lana planifikatu eta antolatu helburuak egoki programatuta; pertsona erabiltzaileen familiarrekin harreman zuzena eduki; etab.
- Gidariak: goizetan, erabiltzaileak beraien geltokietan jaso eta zentrorera eraman, eta arratsaldean aldiz, alderantziz.
- Garbitzaileak: eguneko Zentroko garbiketaz arduratu garbiketa plana jarraituz.


Egoitzak

Mendekotasun egoeran dauden adinekoei zuzendutako egoitzak ere badaude Zumaian (Otezuri eta San Juan). Adinekoei ostatua, mantenua eta zaintza orokorra eta jarraitua eskaintzen dizkieten zentroak dira. Eguneroko bizitzako ekintzak egiteko zaintza eta laguntza pertsonala bermatzen da. Ostatua, zainketa pertsonala eta laguntza, mediku eta erizain zerbitzua, balorazioa, jarraipena eta zerbitzu psikosozialak eskaintzen dira bertan.

Horietan modu jarraian ala puntualean gera daitezke erabiltzaileak. Azken aukera horri dagokionez, adinekoak aukera du hilean gehienez 5 egun jarraian edo urtean 30 egun egoitzan egoteko. Helburua da familiei eta, batez ere, zaintzaileei beren zereginetan atsedena ematea, edo larrialdi egoerei erantzutea.

 hakoak dira azken urteetako erabiltzaile-kopuruak, generoaren arabera:

Zumaiako egoitzetako erabiltzaile-kopuruak 2018 eta 2022 artean, erabilera motaren eta generoaren arabera



Iturria: Gizarte Zerbitzuen memoria 2022


Mendekotasun egoera dauden herritarrei zuzendutako prestazio ekonomikoak

Mendekotasun egoeran dauden herritarrei zuzendutako hainbat prestazio ekonomiko ere eskaintzen ditu udalak, hala nola:

- **Familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoa:** familia inguruneko zaintzaile ez profesionalak mendekotasuna daukan pertsonari ematen dion arretako gastuak estaltzeko helburua duen laguntza ekonomikoa da.
- **Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa:** mendekotasuna duten pertsonen autonomia sustatzeko laguntzaile pertsonalen kontratazioak ekarritako gastuak ordaintzeko diru laguntza da.
- **Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa:** eguneko zentroko edo behin betiko egoitzako plaza pribatuaren kostuari aurre egiteko diru laguntza da.

Honakoak dira mendekotasun egoeran dauden herritarrei zuzendutako prestazio ekonomiko horien eskatzaile kopuruak eta horien eboluzioa denboran:

Mendekotasun egoeran dauden herritarrei laguntzeko prestazio ekonomikoen eskatzaileak 2018 eta 2022 artean



Iturria: Gizarte Zerbitzuen memoria 2022

Nagusien Mahaia

Nagusiekin eta nagusien alde lan egiten duen Udaleko eta herriko elkarteetako ordezkariak, boluntarioek eta senideek osatzen duten lantaldea da. Edozein herritarri eta herriko eragileei irekita dago.

Dinamikaren helburuak honakoak dira:

- Herritar, profesional, erakunde eta elkarten lan eta ekintzak ezagutu eta konpartitu.
- Herri mailan, nagusien inguruan landu daitezkeen gaiak aztertu, baloratu, proposatu eta bideratu.
- Proiektu edo programa elkarrekin bultzatu: "Nagusiekin Nagusientzat Egitaraua".

Dinamika 2012. Urtetik dago abian eta, gaur egun, honakoak dira partaideak:

- Beheko plaza elkarteko ordezkariak
- Nagusilaneke ordezkariak
- Eulen enpresako koordinatzailea: Eguneko Zentroa, Apartamentuak..
- Otezuri egoitzako ordezkaria
- Kabia- San Juan egoitzako ordezkariak
- Osasun Publikoko ordezkariak
- Osasun Zentroko ordezkariak
- Udaleko sail desberdinetako teknikariak: berdintasun, kultura, kirol eta gizarte zerbitzuak
- Udaleko zinegotzia

Adinekoen gizarte-zentroa (Hogar)

Eusebio Gurrutxaga 3 helbidean kokatuta dagoen Udalaren ardurapeko eraikina da “Hogarra” (2002. urtetik). Udalari dagokio bertan dauden zerbitzuen kudeaketa bideratzea eta baita eraikinaren mantentze-lanen ardura ere.

Bertan honako zerbitzuak eskaintzen dira: taberna-jatetxea, ile-apaindegia, podologoak. Gizarte Zerbitzuekin zerikusia duten jarduerak burutzeko erabilera ere badu, hala nola:

- Itsasargia zerbitzua
- Oroimen tailerra

Horrez gain, honako elkarteek ere bertan dute egoitza: Beheko Plaza jubilatuen eta pentsionisten elkartea; Nagusilan elkartea; eta Zumaiako odol emaileak.

Bertatik adinekoei zuzendutako hainbat jarduera ere antolatzen dira, hala nola: Tipi-tapa, mendi irteerak, gimnasia, yoga, dantza, irteerak, oroimena lantzeko tailerra, boluntario modura parte hartzea...

Itsasargi zerbitzua: Zumaiako adinekoentzat gunea

Mendekotasun arriskua edota mendekotasun arina aitortua duten 65 urtetik gorako herritarrei zuzendutako programa da edota, mendekotasun egoera aitortuta ez badute ere, hauskortasun, isolamendu sozial edota bakardade egoeran dauden 65 urtetik gorako herritarrei zuzendua. Bereziki, zailtasun egoerak bizi dituzten adineko pertsonen beharrak asetzea da programaren helburua: dolu prozesuak, depresio egoerak, autoestimu arazoak...

Programa horren baitan, taldeko jarduera dinamiko eta ludikoak antolatzen dira dinamizatzailer baten laguntzarekin eta banakako jarraipena egiten da bide laguntza emanez, gizarte eta hezkuntza arloko eta arlo psikosozialeko esku hartzeak egiteaz gain.

Horrela, osasun fisikoa eta kognitiboa lantzen da ariketen eta informazioaren bidez; gizarte harremanak lantzen dira; parte hartzaileak herriko jardueretan parte hartzea sustatzen da; eguneroko bizimodua hobeki antolatzeko aholkuak partekatzen dira; eta ongizate emozionala hobetzeko aholkuak partekatzen dira.

Jarduerak astelehenetik ostiralera antolatzen dira, egunean bi orduz, Gizarte Zentroan (Hogarra).

Honakoak dira 2021 eta 2022 urteetan programan parte hartu dutenen profilak:

ADINA	2021		2022	
	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak
>60				
60-64			1	
65-69		1		
70-74	3	3	2	1
75-79	2	1	3	1
80-84	2		3	
85-89			1	
>90				
GUZTIRA	12 erabiltzaile		12 erabiltzaile	

Guraso eskolak

0-6 urte bitarteko gurasoentzat tailerrak ere antolatzen ditu Zumaiako udalak, zaintza-lanen inguruko hausnarketa eta esperientziak partekatzea sustatzeko.

Ikasturtez-ikasturte tailerrak ezberdinak izan ohi dira. 2022an, esaterako, honako gaien inguruan antolatu ziren: amorrua, mugak, teknologia eta pantailak, autokontrola, sozializazioa...

Guztia 20 pertsonak hartu zuten parte: 8 gizonezko eta 12 emakumezko.

Haurren zaintzarako baliabideak



- **Haur-eskolak**

Zumaiian bi haur-eskola publiko daude, bata Eskola Txikia haur-eskola eta bestea Arrangoleta haur-eskola. 0-2 urte bitarteko haur eta familientzako zerbitzua ematen dute eta 2023-2024 ikasturtetik aurrera doakoak dira biak.

- **Ikastetxeetako zaintza zerbitzuak**

Zumaiako Herri Eskolak, Lubaki Guraso Elkarteak antolatuta, goizeko zaintza zerbitzua eskaintzen du, goizetan eskola ordua baino lehen zaintza behar duten familiei laguntza emateko. Zerbitzu hori HH2. mailatik LH6. mailara bitarteko ikasleei dago zuzenduta. Honakoak dira eskaintze diren ordutegiak eta horien araberrako kuotak:

- 7:30 - 9:15. 75€/hilean
- 8:15 - 9:15. 50€/hilean
- 8:45 - 9:15. 25€/hilean
- 2. eta 3. anai-arrebek %50eko beherapena dute.
- Aldizkako erabiltzaileak: 7€/eguneko

Zumaiena ikastetxeak ere eskaintzen du zerbitzu hori, 2 urtetik gorako haurrei zuzenduta, goizeko 07:30etik 09:00etara eta eguerdiko 12:30etik 13:00era. Familia bakoitzaren beharren arabera, haurrak ordu tarte horretan ekarri daitezke ikastetxera eta begiraleekin joango dira bakoitza bere gelara. Honakoak dira, kasu honetan, prezioak:

	Goizeko zerbitzua 7:30-9:00	Eguerdiko zerbitzua 12:30-13:00	Hileko kuota
Egun bat	X		6,25€
Egun bat		X	6,25€
2 egunetik 5 egunera	X		12,50€
2 egunetik 5 egunera		X	12,50€
2 egunetik 5 egunera	X	X	16,25€
6 egun edo gehiago	X		24,50€
6 egun edo gehiago		X	12,50€
6 egun edo gehiago	X	X	32,50€

Gazteen heziketa eta zaintzarako bestelako zerbitzu publikoak

Gainerakoan, Zumaiako udalak, gazteen aisialdi eta zaintzari bideratutako beste bi zerbitzu publiko ere baditu:

- **Ludoteka**

Aisialdi oinarritutako heziketa eskaintzen da ludotekan, balio hezitzaileak ardatz harturik programaketak aurrera eramanez. Bertan hainbat ekintza antolatzen dira, hala nola: eskulanak, jolas handiak, ezagutza jolasak, ingurua ezagutzeko pista jolasak, festa eta irteera puntualak... Horien bidez, nerabe eta gaztetxoak balioetan hezte da helburua: laguntasuna, berdintasuna, talde lana, hezkidetzeta, ingurumenarekiko errespetua, garapen indibidualizatua...

- **Gaztegunea**

12 eta 17 urte arteko gazteei zuzendutako espazioa da Gaztegunea. Nerabeei behar bezalako arreta emateko erreferentziarako tokia da, eta zuzendutako ekintzak nahiz gazteek beren kasa egitekoak eskaintzen ditu, autonomia eta autokudeaketa garatzeko.

Lau hilero gai bat lantzen da bertan, gazteen iritzi kritikoa aktibatzen duen helburuarekin. Horien artean dira sexu heziketa, hezkidetzeta, kontsumoak, harremanak nahiz emozioak. Opor garaian ere zerbitzua eskaintzen da, orduz bereziki edota irteerekin.


Udal zaintza zerbitzu publiko horien erabiltzaile-kopuruen datuez gain, galdetegia erantzun duten herritarren ikuskera zein den ere ezagutu dezakegu erantzunak aztertuta:

Galdetegia erantzun duten pertsonen % 16k (63 pertsona) baieztatu dute Zumaiako udalaren edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren zaintza zerbitzuren bateko erabiltzaile direla (zuzenean edo senitartekoren baten kasuan).

Horien artetik, 51 emakumezkoak dira eta 12 gizonezkoak. Jatorriaren arabera ia denak dira Zumaiian edo Euskal Herriko beste herriren batean jaiok (62 pertsona). Pertsona bakarra da Estatuko beste herriren batean jaiok eta galdetegia erantzun duten atzerrian jaiotako pertsonak ez dute mota honetako zerbitzurik baliatzen dutenik aitortzen.

Honakoak dira erabiltzen dituzten zerbitzu ohikoenak: etxez-etxe laguntza (32 erabiltzaile); telelaguntza zerbitzua (18 erabiltzaile); egoitza (14 erabiltzaile); mendekotasun egoerak dituzten pertsonak laguntzeko prestazio ekonomikoak (13 erabiltzaile); eguneko zentroa 11 erabiltzaile); eta Gizarte Zerbitzuetako aholkularitza eta orientazio zerbitzua (10 erabiltzaile). Erantzunak ulertzeko, kontutan hartu behar da pertsona berdinak zerbitzu bat baino gehiago erabili dezakeela.

Herritarrek baliatzen dituzten zaintza zerbitzu publiko ohikoenak




Iturria: galdetegia

6.1.2. Zaintza zerbitzu publikoetarako sarbide-denbora

Honakoa da zaintza zerbitzu publikoetara sarbidea izateko bataz-besteko denbora (egunetan)⁵:

Gipuzkoako Foru Aldundiko zaintza zerbitzuetara sarbidea izateko bataz-besteko denbora (egunak) Zumaiako udalean eskaera egiten den unetik, 2023an



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

⁵ Kasu honetan, aintzat hartu behar da datuak Gipuzkoako Foru Aldundiak eskainiak direla eta, hortaz, bertan ez direla Zumaiako udal zerbitzu guztiak aipatzen, eskumenak partekatutakoak eta Foru Aldundiaren eskumenekoak direnak soilik, baizik.

Ikus daitekeen moduan, desgaitasuna duten pertsonak dira, orokorrean, gehien itxaron behar izaten dutenak zaintza zerbitzu batetarako sarbidea izateko: bai balorazioa lortzeko (192 egun); bai eguneko zentroan plaza lortzeko (584 egun) eta bai egoitza batetan sarbidea izateko (688 egun).

Jarraian daude osasun mentaleko arazoren bat izateagatik eguneko zentrora joateko beharra duten pertsonak (bataz-beste 129 egun zain) eta adinekoen egoitzetan plaza behar dutenak (123 egun). Hala ere, kasu horretan aintzat hartu behar da plaza lortzeko bataz-besteko denbora oso aldakorra izan daitekeela pertsona bakoitzak egindako aukeraketaren arabera. Izan ere, adineko egoitza batean sartzeko pertsona batek ez badu aukeraketarik egiten, hilabete batean sartu daiteke eta, aldiz, azpieskualdeko egoitza konkretu bat nahi badu, 4 hilabete zain egon daiteke.

Gainerakoan, hilabeteko itxaronaldiaren bueltan daude prestazio ekonomiko ezberdinak eskatzen dituzten herritarren itxaronaldiak orokorrean. Eta, kontrara, badira hainbat zerbitzu eskaerak egin eta automatikoki eskaintzen direnak, hala nola: adingabe eta emakume biktimei arreta; eta eguneko zentroko gizarteratze programak.

6.1.3. Zaintza zerbitzu publikoen erabiltzaileen asebetetzea eta zerbitzuaren kalitate-maila

Zaintza zerbitzu publikoetako erabiltzaileen asebetetzea eta zerbitzuaren kalitatea zein den ezagutzeko bi informazio iturri baliatu ditzakegu:


Batetik, hainbat zerbitzu publikoetako erabiltzaileek betetzen dituzten **asebetetze-inkestak**:

- **ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA:**
 - Erabiltzaileen % 100a gustura dago zerbitzuaren maiztasunarekin eta egiten diren funtzioekin. Langileen tratuarekin ere % 100a gustura dago.
 - Orduategien inguruan % 100a gustura dago.
 - Laguntzaileak egiten dituzten eginkizunekin 13 pertsona oso pozik daude (% 92,86), eta 1 nahiko desatsegin dago (% 7,14).
 - Koordinatzailearen funtzioen inguruan ere berdin, 13 pertsona oso pozik daude (% 92,86) eta pertsona 1 nahiko desatsegin dago (% 7,14), aldaketa asko egotearen ondorioz.
- **EGUNEKO ZENTROA:**
 - Erabiltzaileak:
 - Funtzionamendu orokorraren inguruan % 30 oso ados azaldu da eta beste % 70a ados.
 - Antolatzen diren ekintzen inguruan, %40 oso ados azaldu da eta % 60a ados.
 - Profesionalen aldetik jasotzen duten tratu pertsonalaren inguruan, %80a oso ados dago eta %20a ados.
 - Erabiltzaileen iritziak kontutan hartzen ote diren galdeginda, % 70ak oso ados adierazi du, % 20ak ados eta %10ak desados.
 - Zentroko ordutegiari dagokionez, % 40a oso ados dago eta %60a ados.
 - Gainera, bestelako iradokizunak ere jaso dira:
 - Janariaren kalitatea hobetzea
 - Aktibitateak egiterakoan pertsonal gehiagoren parte hartzea
 - Langileen inplikazio maila mantentzea
 - Erabiltzaileen senitartekoak:
 - Zerbitzuarekiko asebetetze orokorraren inguruan senitartekoen % 54,54 oso gustura dago eta %45,45 gustura.
 - Erabiltzaileek jaso duten hobekuntza eta aurrerapenei dagokionez senitartekoen %72,73k adierazi du oso gustura daudela eta % 27,27k gustura.
 - Garraio zerbitzuaren inguruan, %36,36 oso gustura azaldu da, %45,45 gustura eta %18,18 desados.
 - Jasotzen duten tratuaren inguruan, senitartekoen %81,81 oso gustura dago eta %18,18a gustura.
 - Beren iritziak kontutan hartzen direnaren inguruan senitartekoen %63,63 oso gustura dago eta %36,36 gustura.
 - Iradokizunak:
 - Sendian programa erabiltzen dutenean garraioaren ordutegia lanegunetako berbera izatea.

- Bestetik, **galdetegia bete duten herritarren emandako erantzunak.**

Horien arabera, honakoa da zaintza zerbitzuekiko asebetetze-maila:

Zaintza zerbitzu publikoekiko erabiltzaileen asebetetze-maila



Iturria: galdetegia

Horrez gain, zaintza-zerbitzu publiko horiek hobetze aldera, honakoak dira **herritarrek Zumaiako udalari egindako proposamenak eta eskaerak**⁶, gaika multzokatuta:

Baliabide ekonomiko gehiago inbertitzea zaintza zerbitzu publikoetan

- Etxez-etxeko zerbitzua indartzea, zaintza behar dutenek beren etxean zainduak izateko aukera izan dezaten
- No hay servicios para todos los necesitados por lo que hay que invertir más y gestionar en su caso para mejorar cuantitativa y cualitativamente los servicios.
- Que haya más personal por usuario o paciente tanto en nuestras residencias, como en el centro de día. Es muy importante que las personas estén bien atendidas y los trabajadores en buenas condiciones laborales.
- Laguntza eskaintzen duten etxebizitzak.
- Que haya más apartamentos para personas mayores
- Aumentaria la ayuda domiciliaria
- Me gustaria que se pararan un poco a observar las herramientas de trabajo ,que hay en San Juan, dado que la reforma no se inicia hasta 2024.
- Precios más económicos a la hora de contratar cuidadoras
- Pisu tutelatu gehiago, independentzia galdu gabe zainduta egoteko
- Mejorar las condiciones del centro de día para llevarles a nuestros familiares con la tranquilidad de que están bien cuidados.
- Mejorar la oferta actual, sobre todo renovando la residencia cuyas instalaciones están en un estado pésimo, e incrementando los horarios de la atención domiciliaria
- Propongo que sean mejores los cuidados en las residencias, centros de día... para asi animarse mas gente y quitar el tabú que hay al respecto. Ahora mismo, a los usuarios no se les esta dando el debido cuidado y atencion que necesitan.
- Aumento de las horas del Servicio de Atención Domiciliaria y mayor cobertura en los copagos
- Servicios etxez etxeko públicos para todos los días de la semana con tarifas competitivas
- Aumentar plazas centro de dia
- Zahartzarora iristean, saiatu beharko genuke adineko pertsonak bere herritik ez mugitzen. Oso gogorra iruditzen zait zurea ez den herri bateko zahar etxe batean igarotzea bizitzako azken egunak.
- Que se invierta el máximo en las necesidades que presentan las personas a lo largo de toda la vida.

Baliabide pertsonal gehiago zaintza zerbitzu publikoetan

- Esleitutako orduak ez dira nahikoa izaten zaintzaileek egin beharreko lanetarako. Horiek zabalitzea beharrezkoa da.
- Errekurtsoak indartzea, gehienbat langile aldetik. Guztiok nahi dugun arreta indibidualizatu hori lortu ahal izateko.

⁶ Herritarrek eginiko zuzeneko eskaerak izanik, jatorrizko hizkuntza eta idazkera bere horretan mantendu da.

- Creo que hay que poner mas personal y con mejores condiciones de trabajo, tanto en el centro de dia, como en ayuda a domicilio. Estan tratando con personas muy vulnerables y con muchas necesidades y para hacer bien su trabajo necesitan mas tiempo y medios. Esta bien preguntarle a la ciudadanía pero los que mejor saben, cuales son las necesidades y mejoras necesarias en el servicio, son los y las trabajadoras. Y ya se han manifestado muchas veces solicitando mejoras, esa es la mejor fuente, pues son ellas las que saben
- Haría más seguimientos a las familias con necesidades.
- Que cuiden más a las personas que van al servicio de domicilio, se abusa de algunas personas.
- Poner mas personas para ayudar en las casas a los mayores
- Zaintzaileei errekonozimendua, laguntza ematea.
- Nuestros mayores que reciben ayuda domiciliaria necesitan mejor servicio y los que están en San Juan lo mismo, hay mucha carga sobre el pedido social y no tienen tiempo para dedicar y ofrecer cariño a los abuelos
- Eman behar duten zerbitzuari egokitzeko Zaintzaileen prestakuntza hobetzea
- Ampliar los/as profesionales de todo los servicios para que los servicios sean de calidad
- Zaintzari lotutako profesionalak ugaritzea eta beharrezkoa duten formazioa eta apoioa izatea lanean (ratio edota profesional gehiago egotea) eta hauen baldintza laboralak erabat hobetzea (merzei duten aitortza, balioa eman ekonomikoki, oporrak, lan egutegiak... benetan zaintza lanaren duintasuna onartzeko) "
- Zahar etxeetako zerbitzua hobetzea, jende gutxigi lanean eta gure aiton-amonak ezin dira horrela ondo atenditu.
- Mas auxiliares en los centros, se necesita fomentar mucho si queremos llevar ahi a nuestros familiares. Como estan ahora yo desde luego no les llevaba a ningun familiar mio. "
- Que el cuidador/a fuera siempre o, en la medida de lo posible, la misma persona
- Creo que se necesita mas personal. Hay muchos usuarios y pocos trabajadores para responderles.
- Que valoren mas a las personas que trabajan en los servicios de atencion domiciliaria o centro de dia. La organizacion no es del todo correcta y las condiciones de las trabajadoras menos
- Que hubiera más personal en los centros, que les pasearan más al aire libre.
- Que los cuidadores seamos mejor remuneradas. La mayoría trabajamos por nuestra cuenta o por alguna agencia de trabajos y la hora la pagan a 6.50 euros no nos da para vivir.
- Que por favor exijan a las empresas que administran el centro de día y las residencias que se dejen de solo mirar si cumplen los ratios o no y se preocupen de si con el personal que tienen y aparte de la cantidad de usuarios, que tengan en cuenta el grado de dependencia. Todos merecemos ser bien atendidos, somos personas y sobre todo las personas que estás en esos centros no están bien y necesitan más dedicación. No se merecen que les anden dando de comer a toda prisa, aseandoles a toda prisa porque hay poco personal. No hay derecho, ni para los usuarios, ni para los trabajadores. Es inhumano trabajar así. Hace falta más trabajadores y tenerles en buenas condiciones. En otezuri, les tienen a muchas auxiliares pendiente de los móviles porque les pueden llamar en cualquier momento para acudir al trabajo, donde queda ahí, por ejemplo, la conciliación familiar? Cuidemos como nos gustaría que nos cuidarán en todos los sentidos. Espero que podáis hacer algo al respecto.
- Pediría que se preocuparan más por el servicio que se da en el centro de día ya que a las mañanas hay tres auxiliares para veinte usuarios y muy dependientes.

- En el centro de día no se da buen servicio por falta de personal
- Creo se mira mucho los ratios, los numeros,... y poco a las necesidades reales de las personas. Tampoco se tiene en cuenta a las personas cuidadoras, su situación, en el centro de día, ayuda a domicilio, residencia,... no es para nada buena. Si se quiere dar un buen servicio, que creo que es lo que la ciudadanía quiere y necesita, hay que sentarse en la mesa con los cuidadores y atender sus necesidades, que son los que realmente lo viven día a día. Y en mi opinión, aunque el servicio este delegado en empresas privadas, el ayuntamiento debería exigir más a la hora de transferir dichos servicios y comprobar que se cumple lo acordado. Somos usuarios de la ludoteca y la verdad que estamos contentos, también habría que conocer la opinión de los trabajadores y trabajadoras de este centro, por si hay algo que mejorar.
- Mejorar el control y seguimiento de la situación de las personas dependientes en sus domicilios.
- Mejorar la atención personalizada en las residencias, con trabajadores más especializados y mejorando sus condiciones y ratios. Creación de hogares colaborativos, apartamentos tutelados... Ante esto sugiero aumentar el número de plazas. Actualmente son deficitarias.
- Zaintzailatz gehiago arduratzea. Aisialdi eta behar kulturaletako bitarteko egokiak eskeintzea.
- Itsasargia proiekturako zein Eguneko Zentrurako dagoen eskaera ikusita eta egungo baliabideek duinki erantzun ezin duela ikusita, zerbitzua zein profesional kopurua handitzea, langile zein erabiltzaileen eskubideak errespetatuz zein zainduz.
- Interna moduan lan egiten duten egoera ezabatzeko neurriak hartzeko. Agian udalaz haragoko kontua da hau, baina udalak eskua hartu behar du.

Egun dauden zenbait zerbitzu publiko efizienteago bilakatzea

- Autobus zerbitzua molletik kentzea udaran, lotzsgsrris ituditzen zait, pertzona adinekoak, haurdunak, elbarrituak....zer?
- Más servicios wc y ampliación de horario de las mismas
- Que dejen entrar a los autobuses de línea como siempre y no tener que ir a la otra punta del pueblo, no tenemos ni edad ni físico para andar desplazandonos.
- No entiendo cómo se quita la parada de lurraldebus del muelle por fiestas o en verano, estamos invirtiendo un diner al para impulsar el servicio público de transporte y en Zumaia a las personas mayores, embarazadas o con problemas de movilidad que vivimos en el centro o en la zona del faro, se quita dicho servicio. Me parece muy injusto, creo que hay otras alternativas como mantener el servicio a las horas de trabajo, horas de consultas médicas etc. La policía local debería vigilar la circulación de los buses con en el municipio uno retirar el servicio por norma.
- Que las residencias no fueran tan caras, hay mucha gente que no puede permitir
- Astean zehar zaintzaile pribatua duten egoeretan astebururako zaintza zerbitzu publikoa, zaintzaileak asteburuan lasai deskantsatu dezan eta familiak modu duin batean behar duen hori zaindu dezan.
- Ez naiz erabiltzailea oraingoz, baina orokorrean prozedurak erraztea, zerbitzuak merketzea, baliabideak gehitzea... Udalaren aldetik, berriz, gertutasuna, adinekoei jarraipena...

- Zumaian bi egoitza daude, baina horietako batean plaza publikoak ez dira nahikoak, areagotzea komenigarria litzateke eskaintza areagotzeko.
- Más control de los servicios que se ofrecen en el municipio.

Errealitatea zuzenean ezagutzeko neurri gehiago hartu

- Que se preocupen más de las personas mayores que se encuentran solas.
- Deberían de hacer más valoraciones en el campo de la tercera edad y colaborar con los centros que hay y ver las necesidades que tienen. Esta encuesta esta bien, pero deberían de ir a ver a las personas y ver en que condiciones estan viviendo.
- Estar más pendientes de los servicios

Gazteei etxebizitzetara sarbidea izateko erraztasunak eskaini

- Facilitar la vivienda a los jóvenes, en régimen de alquiler o compra, a este paso Zumaia se convertirá en un geriátrico, los hijos se marchan fuera, la relación no es diaria, las cosas sencillas se vuelven complicadas, volvamos al Zumaia de hace 30 años, y mantengamos las familias unidas, la demanda existirá pero se minimizará.

Ikuspegi kooperatiboa duten zerbitzu publikoak abian jartzea Zumaian

- Etxe kooperatiboen esperientziak ezagutu eta sakondu.
- Usurbilen lantzen ari diren zaintzaren inguruko ekimenak adibidetzat hartzea interesgarria iruditzen zait etorkizunean zainketa behar handiko gai bat izango baita.
- Apartamentu txikiak eskura jartzea zaintza eta zerbitzu kolektibo partekatua izan daitezen
- Zaintzako eredu berriei ateak zabaltzea (Txirikorda Usurbilen).
- Promover viviendas colaborativas o comunitarias.
- Erosketak egiteko sarea zabaltzea helduei, pandemia garaian egin zen bezala, baita bakarrik bizi diren, batik bat, helduei telefono bidezko harremana izateko edota alarguna daudenen arteko talde-hitzaldi-tailerrak antolatzeke
- Apartamentu tutelatuak egitea, gaur egun martxan jartzen ari diren eredu berrien baitan.
- Hacer un proyecto de viviendas comunitarias, colsborativas,... para a partir de cierta edad estemos cuidados tiniendo nuestra autonomía y sin ser una carga para nuestr@s hij@s."
- Herritarrak, gizarteko eragile desberdinak, erakunde publiko zein pribatuak eta instituzio publikoen arteko eredu kolaboratiboak ezin bestekoak direla iruditzen zait gai honi kalitatezko erantzun bat emateko.
- Etxe kolaboratiboen inguruan lan egitea. Brankako etxebizitza ereduak gehitzea.
- Begiratu ditzatela eredu berriak, batik bat bizi talde ezberdinak
- Zaintzarako lokal komunitarioak sortzea edo espazio publikoan zaintzarako egokiak diren plaza eta kaleak sortzeko saiakerak egitea. Zaintza lanak kalera atera eta bakardadeari aurre egiteko
- Komunitatean egoteko autonomia minimoa duten zaharrak elkarrekin bizitzeko etxebizitzak. Brankako eskaintzaren antzera baina gehiago...

Irisgarritasun arazoei irtenbidea eman

- Que el ayuntamiento de zumaia mejoren la calle aitzuri y que arreglen los túneles y que se preocupen mas en poner bien todas las calles de zumaia.
- Aunque es posible que sea recurrente, pero las aceras mas suaves para poder pasear sin necesidad de hacer filigranas con la silla.
- Egokitu azerak, egoitza ingurua garbitu,
- Kaleak, mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat egokitzea(kasu honetan, mugikortasun arazoak dituzten adinekoentzat zuzendua)
- Lokal baxuak etxe bihurtu, eta zaintza tutelatueta, etxe konpartitueta bideratu.
- Ojo con los desfases de altura en la vía pública.

Klausula sozialak aplikatzea zaintza-zerbitzuen kontratazio-irizpideetan

- Klausula sozialak ezartzea zaintza zerbitzuen kontratazioetan, eta parekidetasuna, euskarazko arta bermatzeko neurriak (euskaraz doan ikasteko aukera, gastuak azpikontratutako enpresek edo udalak berak bere gain hartuz, adibidez) eta abar ezartzea.

Zaintza eta lana kontziliatzeko baliabide ekonomiko gehiago inbertitzea

- Se necesitan horarios de servicios mas amplios para la conciliacion
- Udaleku...: servicio desde la 9h y comedor
- Colonias de verano ofertar en Agosto.
- Más conciliacion para familias, tenemos hijos pequeños que les cuidan los abuelos por no poder dejar de trabajar.

Zaintza zerbitzu publikoen inguruko informazio gehiago eskaini herritarrei

- Gustatuko litzaidake zahartzaroan, beharra dudan momentua baino lehen herrian dauden zerbitzuak edo eskaintzak ezagutzea nire etorkizunerako plan bat egiteko. Nolabait aurreko hausnarketa bat egitea eta nire bizi plan bat egitea. Ez dut informazio nahikoa ez nire burua ez nire gurasoena nola legokeen egokien ikusteko. Kezkatzen nauen gai bat da baina ez dudana oraindik hausnartu. Tailer edo hitzaldi batzuk gustura entzungo nituzke etorkizun gertu horretarako prestatzeko. Uste dut momentua gainera etortzen zaigula, beldur eta tabu bat delako hau planifikatzea. Mila esker!
- Gizarte zebitzurako informazio fisiko gehiago behar dut, usten dut liburuxka fisiko bat izanez gero jende gehiagori iritsiko zaiola.
- Jendeari gehiago informatzea zein motatako zerbitzuak dauden
- Mayor difusion de informacion en cuanto ala contratacion, derechos, deberes...
- No tengo conocimiento de los servicios que ofrece, pero cualquier ayuda para que los trabajadores autónomos nos veamos compensados por el tiempo que necesitamos para ayudar a nuestros progenitores sería agradecido.

Zaintza zerbitzuetara sarbidea izateko itxarote-denborak arindu

- Han tardado mucho en entregarnos el botón rojo y por parte de Diputación nos negaron ayuda con un enfermo terminal.
- Que sean más rápidos con el tema del botón rojo, han tardado 9 meses
- Que aunque las personas mayores sean autonomas, puedan recurrir facilmente a algun apoyo para su cuidado de forma eficiente.
- Mayor flexibilidad de adaptación y rapidez de reacción , cuando una persona mayor pasa de ser autónomo a dependiente (caídas , ictus...) y la familia necesita soporte rápidamente y la burocracia no acompaña , (tramites , valoraciones de incapacidad..) pasan meses como poco , y en ese impase no hay soluciones rápidas (dan un alta hospitalaria , y no hay recursos disponibles para que te pueda ayudar con el cuidado por ejemplo...)"
- Ezohiko behar baten aurrean baliabideak eskeintzea laguntzaren bat izateko. Laguntzak oso araututa daude eta behar berezi baten aurrean ez dugu babesik
- Los tiempos para atender a las personas son muy ajustados.

Zaintzaren ikuskera zabaldu

- Zaintza esparru zabalago batera zabaltzea. Haurren zaintza, gazteen zaintza, helduen zaintza, adinekoen zaintza...
- Zaintza eredu familiarretan edo helduekin aurrez planifikatzeko programak diseinatu, "testamentu vital" deritzaiona egitearen garrantzia azpimarratu herritarren artean, homeshare antzeko inizatibak kopiatu,...
- Adinekoa izan gabe desgaitazun bat duten pertsonen beharrak gehiago kontuan izatea
- Mendekotasun edo desgaitasun egoeran dauden haur, nerabeentzako zentru eta baliabide profesional gehiago herrian.
- Yo diria que el servicio de cuidados no solo hay que centrar en mayores, porque en esta sociedad donde trabajamos los 2 padres, el cuidado de los menores también coge mucha importancia
- Los peques tienen la ludoteca, los adolescentes la Gaztetxola...y para ellos, qué ? Siempre son los grandes olvidados de la sociedad."
- Sarea indartzea, komunitate izarra indartzeko hausnarketa eta bideaei ekitea, elkartzeko espazioak ahalbideratzea...
- Importante que se tenga en cuenta no unicamente la convivencia (empadronamiento) con la persona necesitada de ayuda, sino el vinculo familiar, afectivo..
- Bitartekoak, zaintza zirkuitoak antolatzeko, herritarrekin batera.
- Adinerako aisialdi zein estimulaziorako tailer eta aukera zabaltzea

Zaintza-zerbitzu publiko berriak abian jartzea

- Pisos tutelados para personas con diversidad funcional (Atzegi, Gautena, Aspace...)
- Laguntza psikologikoa bikotearengandik edo bestelakoengatik indarkeria (baita psikologikoa ere) jasan duten emakumeentzat. Bai modu indibidualean eta baita talde terapia moduan.

Kasu asko daude eta pixkanaka ahultzen eta txikitzen ari den jendea da/gara. Bakardadea eta buru gaixotasunak ekartzen ditu arazo horrek.

- Jubilatuentzat dantza
- Solicitaría una residencia de ancianos
- Un centro acondicionado para personas con discapacidad que acuden al servicio de Atozte de Zumaia. Actualmente cuando hace mal tiempo están en una sala cedida en el edificio de los servicios sociales pero no hay absolutamente nada.
- Si, sobre todo dar facilidades a las personas que tienen que ser asesoradas o acompañadas a médicos, revisiones, compras grandes, o resulten una odisea por que son obligatorios mediante ordenadores.. por ejemplo, arreglar papeleo del pueblo, segunda vivienda), como un caso que me encontré no hace mucho en la cola de la kutxa.. necesitan ser escuchados, son personas que antes han abierto nuestros caminos, han sido la generación más trabajadora, y más humilde, y no han elegido ser mayores, todos seremos mayores, y seguramente que nos sintamos mucho más solos
- Servicios de acompañamiento para pasear,gestiones,compras,charlar...

Zaintza-zerbitzuen publikotasuna bermatu

- Zaintza zerbitzuak publikatzea, baliabide gehio jartzea, eta dibersifikatzea
- En cuanto a la Residencia de ancianos de San Juan, un servicio menos "privado" de lo que en la actualidad rige; y mayor número de personal en cuanto al servicio de los Residentes
- Zaintzak gestio publikoa izatea (Egoitzak, eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza,etab.)
- Que todos los servicios fueran públicos ,no concertados.Las empresas concertadas miran los ratios y el cuidado de las personas dependientes a veces no es tan bueno ,porque no hay suficiente personal,esto lo debería valorar el ayuntamiento.
- Que todos los servicios fueran públicos ,no concertados.
- Zerbitzu pribatuak publikatzeko ahalegina, jakinik ere bere eskumenak mugatuak direla.
- Etxez etxeko zerbitzuen kudeaketa zuzena bere gain hartzea, beste instituzioekin elkarlanean

Zerbitzuetarako sarbidean erraztasun gehiago eskaini zaugarritasun ekonomiko egoeran bizi diren pertsoneri

- Kotizatu duen pertsoneri dohaineko zerbitzua eskeintzea garbiketetako, ordu batzuetan laguntzeko eta konpainia egiteko


6.1.4. Zaintza zerbitzu pribatuak

Zumaiako herritarrek beren kabuz zaintza zerbitzu pribatuak ere kontratatzen dituzte, beren etxeetako beharrei erantzun ahal izateko.

Horien inguruko xehetasunak biltzea lan konplexua da, estatistika orokorrik ez baitago, kontratazio pribatuak izanik. Hala ere, Zumaiako udalak zerbitzu pribatu horiek kontratatzeko eskaintzen dituen diru laguntzetan eskatzaile kopuruak aztertuta, jakin dezakegu, modu orokorrean bada ere, zein den Zumaiako errealitatea.

Zumaiian, 2022an, 94 izan ziren eskatzaileak guztira (55 emakumezko eta 39 gizonezko). Horra diru laguntza hori jaso dutenen eboluzioa azken 5 urteetan:

Mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko laguntzaile pertsonalen kontratazioak ekarritako gastuak ordaintzeko diru laguntzaren eskatzaileak, 2018tik 2022ra




Iturria: Zumaiako Gizarte Zerbitzuen memoria 2022

Gainerakoan, galdetegia erantzun duten herritarrek adierazitakoak ere azertu ditzakegu, zaintza zerbitzu pribatuen inguruko xehetasun gehiago ezagutzeko:

- Galdetegia erantzun duten eta zaintza-lanak beren gain dituzten 13 pertsonak baieztatu dute lan horren trukean diru-sarrerak jasotzen dituztela.
- Guztiak dira emakumezkoak; 6 dira Zumaian jaioak; 5 Euskal Herriko beste herriren batean jaioak; eta 2 Estatuaz kanpoko beste herrialderen batean jaioak.
- Hala ere, jasotzen duten diru-sarrerarekiko asebetetze-maila zein den galdeginda, emaitzak ez dira gogobetegarriak:

Zaintzaileen soldatarekiko asebetetze-maila



Iturria: galdetegia

Hortaz, baieztatu genezake zaintza-lanak beren gain dituzten emakumezko gehienek egoera prekarioa bizi dutela Zumaian.

Horrez gain, beste 5 pertsonak aitortu dute galdetegian zainduak izateko beharra dutela eta zaintza-lan horiek egiteagatik zaintzaile bati dirua ordaintzen diotela. Honakoa da herritar horien profila:

Adin-tartea	Generoa	Jatorria	Bizikidetzaren unitateko kide kopurua	Urteko diru sarrerak	Zaintza-beharra	Zaintzailea
61-70	Gizonezkoa	Zumaia	1	8.000€ eta 15.400€ artean	Mendekotasuna	Familiako bestelako kide batzuek eta zerbitzu publiko bateko zaintzaileek
51-60	Emakumezkoa	Zumaia	2	25.000€ eta 35.000€ artean	Mugikortasun arazoak	Gurasoek, familiako bestelako kide batzuek eta zerbitzu publiko bateko zaintzaileek
31-40	Emakumezkoa	Zumaia	3	25.000€ eta 35.000€ artean	Bakardadea, laguntza psikologikoa	Hurbileko harreman-sareko bestelako pertsonak
51-60	Emakumezkoa	Zumaia	2	25.000€ eta 35.000€ artean	Gaixotasun puntuala eta mugikortasun arazoak	Familiako bestelako kide batzuek eta zerbitzu publiko bateko zaintzaileek
31-40	Emakumezkoa	Beste herrialde bat	5	8.000€ eta 15.400€ artean	Gaixotasun puntuala	Familiako bestelako kide batzuek

6.2 Ordaindu gabeko zaintza lanak

Konplexua da Zumaian ordaindu gabeko zaintza lanak egiten dituzten pertsonen inguruko datu zehatzak, profila, lanen deskribapena... eskaintzea. Izan ere, lan horiek pertsonen biziraupenerako ezinbestekoak eta beharrezkoak diren jarduerak eta eginkizunak badira ere, ez dira jarduera produktiboen barruan sartzen eta, hortaz, ez dira estatistiketan kontabilizatzen. Lan horien subjektu edo objektu den biztanleria familien etxebizitzetan bizi da, eta ordaindu gabeko lan gisa sailkatzen dira jarduera horiek, gehienetan etxeko lan gisa.

Hortaz, Zumaia panorama zein den apur bat argitzeko, inkestako erantzunak baliatuko ditugu diagnostiko honetan, jakinik ez dutela errealitate osoa islatzen.

Horren arabera, 189 pertsonak baieztatu dute norbait zaintzeko ardura beren gain dutela. Horien artean, 154 (% 81,5) emakumezkoak dira eta 35 (% 18,5) gizonezkoak.

Adinaren eta jatorriaren arabera berriz:

Zaintzapean pertsonak dituztela baieztatzen duten pertsonen ehunekoak


Adina	Zumaia edo Euskal Herriko beste herri bat	Estatuko gainerako herriak edo kanpoko beste herrialde bat
18-25	% 7 (pertsona 1)	% 100 (pertsona 1)
25-30	% 8 (3 pertsona)	-
31-40	% 56 (39 pertsona)	% 40 (2 pertsona)
41-50	% 72 (76 pertsona)	% 80 (4 pertsona)
51-60	% 53 (47 pertsona)	% 33 (2 pertsona)
61-70	% 16 (7 pertsona)	% 50 (2 pertsona)
70+	% 23 (4 pertsona)	% 50 (2 pertsona)

Iturria: galdetegia

Gauzak horrela, baieztatu genezake Zumaian edo Euskal Herrian jatorria duten emakumezko gehienek dituztela zaintza lanak beren gain; 30 urtetatik aurrera orokortzen direla lan horiek eta 40tik gorako adin-tartea dela momentu kritikoena; 60 urtetatik aurrera, berriz, beherakada nabarmentzen dela; eta, Euskal Herrikan kanpo jatorria duten pertsonen artean, lagina askoz murriztagoa bada ere, joera antzerakoa errepikatzen dela, lanak egin beharra adin-etapa guztietan errepikatzen bada ere.

Zaintzaile horiek zaintzen dituzten pertsonen dagokienez, honakoa da profila:


Zumaian trukean ordain-saririk gabe zainduak diren pertsonen profila



Iturria: galdetegia

Hortaz, pertsona ohikoenak seme-alabak dira eta, jarraian, gurasoak edo familiako bestelako kideak. Gainerakoan, honakoa da pertsona horiek zaintza lanei egunean eskaintzen dieten ordu kopurua:

Trukean ordain-saririk jasotzen ez duten Zumaiaiko zaintzaileek lan horiei eskaintzen dieten denbora, generoaren arabera




Iturria: galdetegia

Kasu honetan, bada aldea: emakumezkoen kasuan, % 4k soilik dio zaintza-lanei egunean ordu 1 baino gutxiago eskaintzen diela. Gizonezkoen kasuan, berriz, % 30ek baieztatzen du hori.

Gainerakoan, honakoak dira zaintzaileek burutzen dituzten lanik ohikoenak:

Trukean ordain-saririk jasotzen ez duten Zumaiako zaintzaileek egiten dituzten lanak



Iturria: galdetegia


Horiez gain, ordea, inkesta erantzun duten herritarrek beste honakoak ere aipatu dituzte:

- Medikuarenera lagundu.
- Amarekin paseatzera irten.
- Seme-alaben zaintza.
- Haur hezitzailea.
- Eskolako lanekin lagundu.
- Mediku-txanden antolaketa senitarteko ezberdinekin.
- Maitasuna adierazi.
- Administrazio ekonomikoa.
- Tramite burokratikoetan laguntza.
- Garraio-lanak.
- Eskolaz-kanpo jardueretara joan-etorriak.
- Konpainia.
- Administrazio lanak eta aholkularitza finantzaria.
- Botiken prestakuntza.
- ...

Horrez gain, galdetegia erantzun duten 10 pertsonak adierazi dute egunerokoan zainduak izateko beharra dutela (8 emakumezko eta 2 gizonezko). Horien artean, 5ek ordaintzen dute zaintza-lan horien trukean eta gainerako 5ek ez. 6 pertsona Zumaian jaioak dira; beste 3 Euskal Herriko beste herriren batean; eta 1 estatuaz kanpoko beste herrialderen batean.

Pertsona horiek dituzten zaintza-beharrak honakoak dira:


Zainduak izateko beharra duten pertsonen zaintza-beharrak



Iturria: galdetegia

Eta honako pertsonak zaintzen dituzte, orokorrean:

Zainduak izateko beharra duten pertsonen zaintzaileen profila




Iturria: galdetegia

6.3 Zaintza zerbitzuen inguruko herritarren ikuskera

Egungo zaintza-zerbitzuen inguruan herritarrek duten iritzia eta ikuskera zein den jakiteko, galdetegiko erantzunak hartu ditzakegu aintzat.

Zehazki, gaur egun zaintza-zerbitzu beharrik ez duten herritarrei galdegin zaie ea beren senitartekoak zaintza-zerbitzuren batera bideratuko ote lituzketen. Honakoak izan dira bildutako erantzunak:


Zaindua izateko beharra duen senitartekoa zaintza-zerbitzuren batera bideratzeko herritarren prestutasuna



Iturria: galdetegia

Horrez gain, norbanakoei ere galdegin zaie, zaindua izateko beharra izatekotan, zein zerbitzu motatan nahiko luketen artatuak izan. Honakoak izan dira erantzun nagusienak:

Zaindua izateko beharra izanez gero, norbanakoek non nahiko luketen artatuak izan



Iturria: galdetegia

7 IRISGARRITASUNA

7.1 Irisgarritasun aldetik herrian dauden arazoak eta puntu-beltzak

Zumaiako udalak 2021. urtean irisgarritasun plana landu zuen, Suma Urban Sustainability Consultants aholkularitzaren bidez. Ikerlan horren helburua zen dibertsitate funtzionala duten pertsonak Zumaiako eraikin, kale eta garraiobideetan ibili behar izaten dutenean aurki ditzaketen arazoak identifikatzea, konponbideak proposatzea eta konponbide horiek ekonomikoki kuantifikatzea.


Zehazki, honako inguruneen azterketa egin zen:

- Udala titularra den eraikinak:
 - Udaletxea
 - Alondegia
 - Foronda
 - Udaltzaingoa
 - Algorri Interpretazio zentroa
 - Ubillos Jauregia
 - Hilerria (Arritokieta)
 - Hilerria (Artadi)
 - Hilerria (Oikia)
 - Haurreskola Arrangoleta
 - Oikiako Eskola Berria
 - Aitzuri frontoia
 - Zumaia BHI
 - Kiroldegia
 - Itsas kiroldegia/Ludoteka
 - Aita Mari Zinea
 - Bake Epaitegia
 - Turismo Bulegoa
 - San Telmo ermita
 - Kofradia
 - Surfeko lokala
 - Udal Azoka
 - Oikiako frontoia
 - Aita Mari Herri Eskola
 - Itzurun hondartzako instalazioak
 - Santiago hondartzako instalazioak
 - Branka
 - Gaztetxokoa
 - Pantalana
- Bide publikoa:
 - Udalerriko hiri-esparruaren barruko espazio publiko eta oinezkoen ibilbide nagusiak.
 - Hirigintzako elementuak (eskailerak, arrapalak, igogailuak, komun publikoak eta oinezkoentzako pasaguneak).

- Hiri altzariak (bankuak, txorkoak, zaborrontziak, bolardoak, jardinerak, iturriak, ur harguneak-hidranteak, edukiontziak, telefonoak eta gutunontziak).
- Garraioa
 - Mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatzen diren aparkalekuak.
 - Garraio erregularreko lineetako autobusen geltokiak.

Ikerketak Zumaiako ibilbide nagusiak zein ziren identifikatu eta azertu zuen eta horietariko bakoitzean hobekuntzak behar zituzten elementuak seinalezatu zituen, mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko. Zehazki, honakoak izan ziren lehenetsitako 8 ibilbideak:

- a. NARRONDOREN ETA UROLAREN ITSASADARRAREN EKIALDEKO ERTZA
- b. NARRONDOREN ETA UROLAREN ITSASADARRAREN MENDEBALDEKO ERTZA
- c. AITA MARI
- d. GERNIKA IBILBIDEA-SANTIAGO HONDARTZA
- e. AMAIA PLAZA-ITZURUN HONDARTZA
- f. SAN TELMO ERMITA
- g. ALDE ZAHARRA
- h. PATXITA ETXEZARRETA-ESTAZIOA



Horietan proposatutako hobekuntzak honakoak izan ziren: eraikinetako irisgarritasun arazoak konpondu, altzari irisgarriak berritu, urbanizazio elementuak konpondu eta garraio elementuak berritu. Eta, horrez gain, Larretxo auzo barruko ekintza eskatuenei lehentasuna ematea proposatu zen. Lan horiek egiteko aurrekontua ere finkatu zuen txostenak:

IBILBIDEA	ERAIKINAK	HIRI-ALTZARIAK	ELEMENTUAK	GARRAIOA	MUBE	BESTELAKOAK	GUZTIRA
1	56.185,54	39.520,00	38.385,27	1.037,20	-	-	135.128,02
2	320.744,59	82.108,96	140.338,93	19.192,65	-	-	562.385,13
3	77.633,54	58.775,13	101.759,20	3.589,49	-	-	241.757,36
4	98.413,95	30.621,99	9.906,22	1.949,18	-	-	140.891,35
5	83.623,45	12.243,07	31.920,25	-	309.117,00	-	436.903,77
6	8.174,12	22.379,23	27.711,16	1.523,80	171.765,00	-	231.553,30
7	45.891,72	47.562,20	41.479,20	-	377.883,00	370.900,00	883.716,12
8	-	8.157,00	23.215,60	18.431,19	-	-	49.803,79
GUZTIRA	690.666,91	301.367,58	414.715,84	45.723,50	858.765,00	370.900,00	2.682.138,83

Dokumentua honako loturan eskuragarri dago, osoki kontsultatu nahi duen ororentzat: https://zumaia.eus/eu/laburpen_dokumentua.pdf/view

8 KOMUNITATEEN ARTEKO KOHESIOA

Zumaia herri anitza da, 4.1. atalean aztertu dugun moduan: XX. mendearen 60. hamarkadatik aurrerantzean Euskal Herriko herri eta auzoetara lanera etorritako bizilagun askok izugarritzko ekarpena egin zuten herriaren garapenean; eta gaur egungo biztanleriaren % 6k inguru du atzerriko herrialderen batean jatorria, Marokon, Errumanian eta Hego Ameriketako herrialdeetan, bereziki. dute jatorria.

Biztanleriaren mugimendu horiek gizartearen beraren antolaketa birpentsatzera behartzen gaituzte, pentsamendu, ideia, hizkuntza eta mundu-ikuskerak askotarikoak dituzten pertsonen arteko elkarbizitza artikulatzea beharrezko eginez. Herrira pertsona berriak bizitzera etortzean komunitateen arteko topaketa lantzea beharrezkoa da, elkarbizitza modu sanoan eta botere-harremanik gabe (menderakuntza-egoerarik gabe) posible egiteko.

Diagnostikoaren atal honetan, galdetegia erantzun duten herritarren esperientzian oinarriturik, komunitateen arteko kohesioaren osasuna egun zenbaterainokoa den neurtu dugu, horretarako herritarren arteko egungo harreman-sarea zein den, atzeritik Zumaia bizitzera etorri diren herritarren bizipenak zein diren eta komunitateen arteko egun existitzen diren topaguneak zein diren aztertuta.

8.1 Harreman-sarea Zumaian

Zumaian jatorri anitzetako herritarren arteko harremanak egunerokoan zenbateraino ematen diren jakiteko, Zumaian edo Euskal Herriko beste herriren batean jaiotako herritarrei galdegin zaie ea egunerokoan Euskal Herriaz kanpo jaiotako pertsonekin harremanik ote duten. Horrez gain, estatuko beste herriren batean edo estatuaz gaindiko beste herrialderen batean jaiotakoei, Euskal Herrian jaiotako pertsonekin egunerokoan harremanik ba ote duten ere galdegin zaie.

Honakoak dira emaitzak:

Zumaian edo Euskal Herriko beste herriren batean jaiotako herritarren gehiengoak (% 68) dio egunerokoan harremana duela Euskal Herriaz kanpo jaiotako pertsonekin. % 32k, berriz, ezetz erantzun du.

Erantzun horiek generoaren arabera aztertuta, gizonezko gehiagok (% 73) dio Euskal Herriaz kanpo jaiotako pertsonekin harremanetzeko ohitura duela egunerokoan.

Adinaren arabera, berriz:

- 18-25 adin-tarteko herritarren % 57k baieztatzen du ohitura duela Euskal Herriaz kanpoko pertsonekin harremanetzeko.
- 25-30 adin-tarteko % 56k.
- 31-40 adin-tarteko % 67k.
- 41-50 adin-tarteko % 69k.
- 51-60 adin-tarteko % 76k.
- 61-70 adin-tarteko % 72k.
- Eta 70 urtetik gorako % 63k.

Hortaz, Zumaian edo Euskal Herrian jaiotako herritarren artean, gero eta helduagoa izan, orduan eta ohikoagoa da jatorri anitzeko pertsonekin harremana izatea. Hala ere, harremantzeko kultura herritarren gehiengoak badu ere, oraindik badira asko (gazteak, batik bat) ez dutenak horretarako beharrik sentitzen. Honakoak dira ez-harremantze hori azaltzeko aipatzen dituzten arrazoi nagusienak:

- Atzerritik Zumaira etorritako jendea ezagutzen dudan arren, harremana ez da egunerokoa.
- Egiten ditudan jarduera sozialetan orohar ez dute kanpoan jaiotako pertsonak parte hartzen
- Eguneroko ohiturak eta ordutegik desberdinak ditugu.
- Hizkuntza, komunikazio berbala.
- Nire lanagatik eta egunerokotasuneko ekintzak direla eta, eguneroko harreman gehienak Euskal Herrian jaiotako jendearekin ditut.
- Euskal Herritik kanpo jaio den oso pertsona gutxi daude nire inguruan. Auzokideren bat badut eta tarteka dut harremana horiekin, baina oso gutxi. Bestela, atzerriko jatorria duen dendariekin dut harremana, euren dendetara joaten naizenean zerbait erostera.
- Ez dut inor ezagutzen.
- Lanean bai baina hortik kanpo ez dut ohiturarik.
- Ez dudalako behar besteko ahalegina egiten haiengana hurbiltzeko. Jatorriagatik nahiz maila ekonomikoagatik gertatzen den segregazioa badago Zumaian ere.
- Ez dut Euskal Herriaz kanpo jasotako pertsonarik nire lan-ingurunean.
- Zaila egiten da topaguneak bilatzea.

Arrazoi horiez gain, bada “egunerokoan topo egiten ez dutela”, “parean egokitzen ez direla”, “inguruan atzerriko jatorria duen inor ez duela”, “kasualitatez tokatu ez dela” edo “kaletik ezagutzen ez dudan jendeari kasu egiten joaten ez dela” aitortzen duenik ere. Kasu horietan, komunitateen arteko topagune falta edo topagune horietara sartzeko aukera-parekidetasun falta nabarmentzen da, datuek erakusten duten moduan, Zumaian jatorri atzerritarreko jendea egon baitago.

Horrez gain, “ez dut uste beharrezkoa denik” aitortzen duenik ere bada. Kasu horretan, komunitateen arteko zubiak eraikitzekeo desira gabezia, xenofobia edo arrazismoa izan daitezke erantzule. Bada, hortaz, horrelakorik ere herrian.

Aldiz, **Euskal Herriaz gandi, Estatu espainiarreko herriren batean edo beste herrialderen batean jaiotako** herritarren kasuan, gehiengo zabalak (% 91) dio egunerokoan Zumaian edo Euskal Herrian jaiotako pertsonekin harremana duela.

Kasu honetan, bi pertsonak soilik erantzun dute ezetz, egunerokoan ez dutela beren komunitatekoa ez den beste herrikideekin harremanik. Biak emakumezkoak dira eta 40-60 adin tartean kokatzen dira eta ez harremantzeko honako arrazoiak aipatzen dituzte:

- Nire lan-ordutegia eta euskara. Zaila da kuadrilla batean sartzea eta, lortzen baduzu, jendea ez da oso abegikorra, jakinik ni kanpotarra naizela, euskaraz hitz egiten jarraitzen dutelako.
- Arrazismoa.

8.2 Komunitateen arteko topaguneak

Hortaz, non egiten dute topo komunitate anitzetako zumaiarrek beren artean?

Galdetegia erantzun duten herritarrei topaguneen inguruan galdeginda, honakoak dira erantzun ohikoak:

Zumaian edo Euskal Herrian jaiotako pertsonen esanetan	Estatuko herriren batean edo atzerrian jaiotako pertsonen esanetan
Arku-tiroketan	Kafetegian
Bikote harremanean (14 aipamen)	Kalean (4 aipamen)
Bizilagunak (6 aipamen)	Ikastetxean (3 aipamen)
Dantzan	Lanean, elizan, dantza klaseetan eta kirol jardueretan
Eguneko zentroan	Bikote harremanean (2 aipamen)
Emakumeen etxearen jardueretan (6 aipamen)	Ikastetxean, hondartzan, parkean, tabernan, festetan...
Ikastetxean (17 aipamen)	Zaintza-lanetan (2 aipamen)
Euskaltegian	Lanean, kalean, tabernetan, dendetan...
Familian (7 aipamen)	
Gimnasioan (3 aipamen)	
Haurren eskolaz kanpoko jardueretan	
Ikastaroetan eta lanean (2 aipamen)	
Janari banaketan	
Jarduera anitzetan	
Jubilatuena etxean (2 aipamen)	
Kafetegian (5 aipamen)	
Kalean (24 aipamen)	
Kirol jardueretan (3 aipamen)	
Lagunak (10 aipamen)	
Lanean (83 aipamen)	
Mintzalagun programan	
Nagusilanean	
Oporretan	
Parkean (2 aipamen)	
Sare sozialetan eta interneten (4 aipamen)	
Zaintza-lanetan (7 aipamen)	

Horrez gain, Estatuko herriren batean edo atzerrian jaiotako pertsonei, Zumaian antolatutako talderen bateko kide diren edo ez ere galdegin zaie. % 35ak soilik erantzun du baietz. Honakoa dira, horien kasuan, parte hartzen duten espazioak: jubilatuak (2 aipamen), Malen Etxea (2 aipamen), San Pedroko danborrada eta eskulanak egiteko tailerrak.

8.3 Herritar etorkinen bizipenak eta beharrak

Azkenik, jatorri atzerritarreko herrikideei Zumaiara heldu zireneko beren bizipenen inguruan eta falta bota zuten horren inguruan ere galdegin zaie. Honakoak izan dira erantzunak:

Zer izan zen zuretzat lagungarri Zumaiara heldu zinenean?

- Oso bakarrik sentitu nintzen hasieran, elkarte batean parte hartzen hasteak izugarri lagundu zidan.
- Jendearengana gerturatu eta galderak egitea, oso irekia naiz eta bizkor hasi nintzen lagunak egiten. Jendea oso atsegina da.
- Seme-alabak izateak lagundu zidan harremanak garatzen.
- Ezkondu eta Zumaiara bizitzera etorri nintzen. Senarra eta bere lagunekin hasi nintzen orduan harremantzen.
- Parte hartzen dudako erakundeko kideek ez naute bakarrik utzi, haiekin ondo sentitzen naiz.

Zer hobetuko zenuke esperientzia horretatik? Zer bota zenuen faltan?

- Informazioa izatea.
- Eskubide parekidetasuna.
- Esperientzia guztiek laguntzen dute, niri une hartan familia eta lagunak falta zitzaizkidan.
- Laguntza-sare zabalagoa. Agian badago, baina ez dut ezagutzen.
- Topaguneak, jendearekin elkartzeko aukera gehiago eta herriko jardueren informazio gehiago
- Enpatia apur bat: euskara ikasten ari nintzenean eta oso poliki hitz egiten nuenean bertako jendeak gaztelaniara errazegi aldatzen zuen. Ez zuten ulertzen edo sinesten benetan euskara ikasi nahi nuenik.

9 ONDORIOAK

Zumaia zahartzen ari da: 65 urtetik gorako gero eta biztanle gehiago ditu eta etorkizunean ere joera horri eutsiko dio. Gauzak horrela, biztanleria gero eta helduago batek dakartzan erronkei eta zaintza beharrei erantzungo dien sistema bat artikulatzea beharrezkoa izango da etorkizun hurbilak planteatuko dituen erronkei modu eraginkorrean aurre hartzeko.

Zumaiak gero eta biztanle gehiago ditu (236 pertsona gehiago bizi dira herrian 2018-2022 datuak alderatuta). Gorakada horren eragile nagusia biztanleriaren zahartze progresiboa da: 65 urtetik gorako gero eta biztanle gehiago daude urterik urte.

Biztanleriaren adinaren datuak generoaren arabera aztertuta, nabarmena da 60 urteetako langa. Ordura artean gizonezkoak gehiago dira ia adin tarte guztietan (45 eta 49 adin tarte, bereziki). Hortik aurrera, berriz, emakumezkoak dira nagusi, beren kasuan bizi-itxaropena altuagoa denaren seinale. Eta, gauzak horrela, haiek dira adinari lotutako zaintza-behar espezifikoak dituztenak, Zumaia zaintza-zerbitzu publikoen erabiltzaile ohikoenak ere badirelarik:

- Telelaguntza zerbitzuaren emakumezko erabiltzaileak askoz gehiago dira⁷, eta urtero kopurua gora egiten ari da.
- Etxez-etxeko zerbitzuaren erabiltzaileen kasuan ere, bakarrik bizi diren emakumezko helduak (“hirugarren adinekoak”) dira zerbitzu horren hartzaile ohikoenak.
- Apartamentu tutelatuetak erabiltzaile (mendekotasun egoera arinak dituztenak) gehienak ere emakumezkoak dira⁸.
- Eguneko zentroko erabiltzaile gehienak emakumezkoak dira⁹.
- Mendekotasun egoerak dauden adinekoei zuzendutako egoitzetan ere (Otezuri eta San Juan) emakumezkoak dira behin-betiko erabiltzaile gehienak¹⁰.
- Hauskortasun, isolamendu sozial edo bakardade egoeran dauden 65 urtetik gorako herritarrei zuzendutako Itsasargi zerbitzuko erabiltzaile gehienak ere emakumezkoak dira (10, 2 gizonezkoren aldean).

Gauzak horrela, etorkizunari begira badirudi honako joerak errotuko direla:

- Zumaian edo Euskal Herriko beste herriren batean jaiotako biztanleria gero eta helduagoa izango da: 5-15 urteren buruan gaur egun 40 eta 60 urte bitartean dauden biztanleek (biztanleriaren piramidean gehiengoa direnak, *baby boomerrak*) 65 urte baino gehiago izango dituzte.
- 65 urtetik gorako biztanle gehienak emakumezkoak izango dira.

Hortaz, adinean gero eta nagusiagoa den jendarte baten beharrei erantzuteko prest dagoen zaintza-sistema bat prest izatea ezinbestekoa izango da Zumaia-arentzat etorkizun hurbilean. Eta, zaintza-sistema honen hartzaile nagusiak emakumeak izango diren heinean, beren beharrian espezifikoetan arreta jartzea ezinbesteko baldintza izango da.

⁷ 2018. urtean emakumezko erabiltzaileak 166 ziren eta gizonezkoak, berriz, 50. 2022an, aldiz, 234 ziren emakumezko erabiltzaileak (+68) eta 74 gizonezkoak (+24).

⁸ 2022. urtean 16 ziren emakumezko erabiltzaileak eta gizonezkoak, berriz, 7.

⁹ 75 urtetik gorako 16 emakumek baliatu zuten zerbitzu hori 2022. urtean eta gizonezkoak, berriz, 7 izan ziren.

¹⁰ 2022an behin-betiko erabiltzaileak 13 izan ziren, 9 emakumezko eta 4 gizonezko.

Gauzak horrela, 65 urtetik gorako gero eta herritar gehiago izango dituen herri batean beharrezkoa izango da:

- Osasun alorrean beharrezko atentzioa jasotzeko zerbitzu eta baliabideak eskura izatea, adin nagusitasunak berekin dakartzan beharrei erantzuteko gaitasunarekin.
- Kalitatea eta autonomia oinarri dituen bizitza proiektuak garatzeko espazioak eskaintzea, egungo seme-alabadun bikote eskema tradizionala gaindituz eta bestelako harreman-eredu batzuk posible egin ditzaketen espazioak esperimintatu eta frogatuz.
- Aisialdi eskaintza interesgarria bermatzea, adin nagusitasunera egokitua, behar eta interes espezifikoak aintzat hartzen dituena.
- Teknologiak eta digitalizazioak eskaini ditzakeen baliabideak pertsonen beharrei erantzuteko modu efektiboan baliatzea, inor alboratu gabe.
- Adinean nagusiak diren pertsonen arteko sozializazio eremu eta sare berriak artikulatzeko espazioak izatea.
- ...

Egungo sistema politiko, administratibo, sozial eta kulturalari bere horretan eutsi nahi bazaio, migrazio mugimenduek dakarten testuinguru soziopolitiko berriari arreta jartzea izango da ezinbesteko beste gakoetako bat. Jatorri askotariko pertsonak Euskal Herriko antolaketa ekonomiko, sozial eta politikoan gizarteratzeko eta berdintasunean oinarrituriko elkarbizitza sustatzeko erronka dugu esku-artean. Gizarte ereduaren ezinbesteko eraldaketa honen aurrean, zaintza-sistemaren aferak lehen lerroa egin du jauzi. Zaintzaren feminizazioak dakarren prekarietate egoera handitu egiten da emakume migratuen kasuan, zaugarritasun egoera larrietan bizirautera kondenatuz. Testuinguru horretan, beharrezkoa izango da egun indarrean dirauten zapalkuntza egoerez gain, migratu duten herritar horiek jasaten dituzten bestelako zapalkuntza egoerak ere aintzat hartu eta horiek gainditzeko neurriak hartzea

Herritarrak gero eta helduagoak izanik, Zumaiako jaiotza-kopurua ez da nahikoa izango biztanleen behar guztiak asetzeko eta egungo sistema sostengatzeko. Horregatik, migrazio-mugimenduak klabe izango dira: aktiboki lana egiteko adinean dauden jatorri askotariko biztanle gazte asko integratuko dira gure sistema ekonomiko, sozial eta politikoan, baina baita gure zaintza-sisteman ere.

Gaur egun joera horixe dela baieztatu genezake:

- 2023an herritarren % 6k zuen atzerriko herrialderen batean jatorria.
- Horien artean, gehiengoa emakumezkoa da eta lanerako adinean daude gehienak (18-65 tarteko 457 biztanle).
- 65 urtetik gorako jatorri migratzaileko biztanleak, berriz, gutxiengoa dira (28 pertsona soilik).

Fenomeno hori ez da berria. Pasa den XX. mendearen 60. hamarkadatik aurrerantzean Euskal Herriko herri eta auzoetara bizilagun asko etorri dira bizitzera eta gure lurraldearen garapenean izugarritzko ekarpena egin dute.

Egun ere badatoz Zumaiara bizitzera: herritar gehienek Marokon (118), Errumanian (75) eta Kolonbian (56) dute jatorria. Datua kontinentearen arabera aztertuta, ordea, Hego Amerika eta Karibeko herrialdeetakoak dira bertarutzen diren herritar gehienak (285).

Biztanleriaren mugimendu horiek, ordea, gizartearen beraren eraldaketa dakarte: pentsamendu, ideia, hizkuntza eta mundu-ikuskerak askotarikoak dituzten pertsonen arteko elkarbizitza artikulatzea beharrezko egiten du.

Izan ere, migratu duen herritar horietariko bakoitzak bizitza-ibilbide propioa du; bere jatorri kultural indibiduala maite eta babestu nahi du Euskal Herrian ere parte sentituz eta beste identitate batzuetara gerturatzeko prestutasuna izanaz; beren hizkuntzekiko atxikimendua du; eta amets eta esperantza partikularrak ditu.

Gauzak horrela, Zumaia gero eta anitzago bat dugun honetan, egoera horri lotutako botere-harremanak, pribilegioak, identitate kultural hegemonikoak eta hizkuntza arazoak direla medio ematen diren zapalkuntza egoerak biderkatu ere egin zaizkigu. Bide horretan, desberdintasunei heltzeko ikuspegi gisa, kontuan hartu beharko dugu generoak edota arrazak beste diskriminazio

faktore anitzekin¹¹ duen aldibereko harremana. Gauzak horrela, interseksionalitatearen ideia oinarri hartuta, zapalkuntza anitzek egoera zaurgarrietan dauden pertsonetan nola eragiten duten kontutan hartu beharko dugu, arreta berezia jarriaz zaintzaren arloan ere identitate zaurgarri horiei.

Izan ere, jatorri migratzaileko emakume arrazializatuak dira, kasu gehien-gehienetan, zaintza lanak burutzen dituztenak, beste lan-irtenbide aukerarik ezean. Emakume arrazializatu horiek, gainera, beharra izanda ere, ez dira, orokorrean, zaintza zerbitzu publikoen erabiltzaile izaten.

Zentzu horretan, argigarria da aztertzea zer erantzun duten jatorria Euskal Herritik kanpoko herrialderen batean dutela erantzun duten herritarrek, Zumaiara heldu zirenean izan zuten esperientziaren inguruan galdegindakoan, edo zer faltan bota zuten galdegindakoan. Askok adierazi dute “oso bakarrik sentitu izan zirela hasieran”, “elkarte batean parte hartzen hastea lagungarri izan zitzaizela”, “informazioa eta lagunak egiteko topaguneak” faltan bota izan zituztela eta “empatia falta” ere nabaritu izan zutela, euskara ikastea, esaterako.

Egoera horiek gainditzeko, identitate kultural desberdinak dituzten pertsona edo taldeen arteko elkarrekintza eta komunikazioa sustatzean dago gakoa, pertsona edo talde konkritu batzuen edo besteen ideiak, lan eskubideak, hizkuntzak edo ohiturak gainontzekoen gainetik ez daudela ulertuta eta bermatuta. Horretarako, egun existitzen diren herritarren arteko topaguneak indartu behar dira; topagune berriak sortu behar dira; eta pertsona oroien bizi-baldintza duinak bermatu behar dira, gizarteratze integralak bultzatzeko komunitate anitzen artean. Komunitatea indartu behar da, horretarako beharra dago eta. Eta zaintzaileak, zaindu.

¹¹ Klase soziala, desgaitasun-maila, adina, hizkuntza, orientazio sexuala, identitate sexuala, familia-eredua eta inguruabar pertsonalak eta sozialak.

Zaintza lana feminizatua eta prekarizatua da, gehienetan ordaindu edo aitortu ere egiten ez dena, familia nuklear normatiboen baitan eta genero rolek guztiz baldintzatuta ematen delako. Gizartean etxeko eta zaintza lanen banaketa parekide baterantz goazenaren iruditegia zabaltzen ari den honetan, datuek bestelako argazkia eskaintzen digute: emakumeak dira, oraindik, zaintza lanen zama osoa beren bizkarrean daramatenak. Hortaz, gizarte oso baten eta, oro har, bizitzaren sostengurako oinarritzko lan eta erantzukizunak emakumeek betetzen dituzte. Eta, egun, gainera, etxetik kanpoko lanarekin batera aurrera eramane behar izaten dituzte behartutako lan horiek sarritan.

Emakumezkoak dira zaintza lanak beren gain hartzen dituztenak. Hori aditzera ematen digute honako datuek:

- Sendian programaren (adineko mendeko pertsonak zaintzen dituzten senideentzako laguntza programa) erabiltzaile gehien-gehienak emakumezkoak dira (2022an 14 emakumezko eta 2 gizonezko).
- Galdetegiak: zaintza lanen bat beren gain dutela baieztatu duten herritarren % 81 ziren emakumezkoak eta % 19, berriz, gizonezkoak. Honakoak dira zaindutako pertsona ohikoenak: seme-alabak (% 60), gurasoak (% 26) eta familiako beste kide batzuk (% 11).

Lan feminizatua da zaintzena, hortaz.

Zaintza lanak beren gain hartzen dituzten emakumezkoak gizonezkoak baino askoz gehiago dira, genero rolek horrela baldintzatuta, familia nuklear heteronormatiboen baitan oraindik ere lan horiek emakumezkoek esleitzen zaizkielako, aitortzarik gabe, sarritan: seme-alaben, gurasoen, aiton-amonen... zaintza lanak; erosketak egitea; etxebizitzaren garbiketa; otorduen prestaketa; pertsona helduen edo gaixoen artatzea; higiene pertsonala mantentzen laguntzea; akonpainamendu psikologikoa¹²...

Gainera, kasu gehien-gehienetan trukean inolako soldatarik jaso gabe egiten dira lan horiek¹³ eta kostu handia izan ohi dute bizitza pertsonalean ere, osasuna kaltetzeraino edo norbere buruaren zaintza baldintzatzeraino (galdetegia erantzun duten herritar zaintzaile askok adierazi moduan).

Hala ere, badira zaintza lanen trukean soldata jasotzen duten herritarrak ere (galdetegia erantzun dutenen kasuan, emakumezkoak dira denak).

Feminizatutako zaintza-lanpostu horiei dagozkien lan-baldintzak, ordea, prekarioak izan ohi dira. Inkesta erantzun duten herritar zaintzaileen % 75k esan du zaintza-lanak egiteagatik jasotzen duen diru-sarrerarekin erdizka dagoela gustura eta % 25k, berriz, batere gustura ez dagoela.

Lan feminizatua izateaz gain, prekarizatua ere bada zaintzarena, hortaz.

Emakume zaintzaile horiek egunean zaintza-lanei eskaini behar izaten dieten ordu kopurua zein den aztertzea esanguratsua da, oso:

- Gehienek (% 37) diote egunean 2-4 ordu artean eskaintzen dizkiotela lan horiei.
- % 27k dio egunean 8 ordu baino gehiago eskaintzen dizkiola zaintza-lanei.
- % 16k 4 eta 8 ordu artean eskaintzen dizkiola.

¹² Galdetegiko erantzunak dira horiek guztiak.

¹³ Inkesta erantzun duten pertsonen artean, gehiengo zabalak (% 93) onartu du lan horiek egiteagatik ez duela inolako soldatarik jasotzen.



- Eta % 15ak 1 eta 2 ordu artean.

Hortaz, nabarmena da desoreka: emakumezkoek ez dituzte zaintza lanak borondatez beren gain hartzen, beste erremediorik izan ohi ez dutelako baizik eta jendarteak lan horiek egitera behartzen dituztelako.

Zaintza-lanak dira bizitzaren sostengua, gizarte oso baten antolaketari eusteko ezinbesteko lana. Bada, lan hauei ikusgarritasuna emateaz gain balioan jarri, baldintza duinak sortu eta kolektibizatzeko premia dago. Emakumeak prekarietatera eta familiaren baitako ardura-maila desorekatura kondenatuta daude sistema bera eraldatu eta ardurak birbanatu ezean. Zentzu horretan, beharrezkoa da genero-arrakala baliatzen eta betikitzen duen gizarte antolamendua seinalatzea eta problematizatzea.

Bakardadea gero eta fenomeno ohikoagoa da Zumaian eta, desiratu ez den kasuetan, arazo larri izan daiteke. Emakumezko gazteenak dira bakarrik sentitzen direla baieztatzen duten gehienak. Egoera zaurgarrienak eta arrisku egoera larrienak, ordea, adin gehien duten herritarrek pairatzen dituzte.

Bizikidetza unitateak gero eta txikiagoak dira Zumaian. Gaur egun¹⁴ 1108 pertsona binaka bizi dira; 1051 bakarka; 825 4ko unitateetan; eta 696 3koetan. Hortik gorako bizikidetza-unitateak ia testimonialak dira.

Familia-eredu nuklear tradizionala deseraikitzen ari den une honetan, bizikidetza-unitate anitzak, filiazio familiar zehatz baten arabekoak ez direnak, gero eta ohikoagoak dira eta, noski, pertsona gero eta gehiagok ere egiten dute bakarrik bizitzeko hautua. Gauzak horrela, aurreko parrafoan aipatutako datuak ez dira kezkarriak bere horretan.

Bakarrik bizitzeak, ordea, zailtasunak eragiten ditu gaur egungo jendartean oraindik eta, horiek, aintzat hartzekoak dira:

- Batetik, bakarka bizi beharrak prekaritatea ekar dezake, nukleo familiar bati eskatzen zaion esfortzu ekonomikoa, gastuei aurre egin beharra... pertsona batek bakarka egiteak zailtasunak eragin ditzakeelako.
- Bestetik, bakardadearen eragilea zein den identifikatzea ere garrantzitsua da, bakardade hori hautatua ez den kasu batzuetan, egoera zaurgarriak eta mendekotasun egoerak sorrarazi ditzakeelako.

Azken horri lotuta, gizarte-isolamendua eta hautatu gabeko bakardadea esperientzia desatseginak eta estresagarriak dira pertsonentzat, asaldura emozionalekin eta gizarte-bazterketako sentimenduekin lotzen direnak. Horrela definitu daiteke bakardade ez-hautatu hori: pertsona batek beste pertsona batzuek ulertzen ez dutela edo baztertzeko dutela sentitzen duenean ematen den sentsazioa, eta baita garatu nahi dituen jardueretarako laguntza egokirik jasotzen ez duenean sortzen dena ere¹⁵.

Hainbat faktorek eragin dezakete hori, hala nola: trebetasun sozialik ezak, arazo psikopatologikoen ondorioz trebetasunak hondatzeak edo motibazioa galtzeak, esperientzia desatseginak (deserrotzea, bazterketa) pairatu izanak... Pertsona bakartuek gizarte-laguntza defizita pairatu ohi dute eta, horrek, areagotu egin lezake estresarekin lotutako gaixotasun eta nahaste psikopatologikoekiko zaurgarritasuna.

Zaintzaren ikuspegitik, hortaz, bakardade mota horren kudeaketa ezinbestekoa da.

Zumaiako datuak aztertuta, esanguratsua da ikustea emakumezko gazteak (25 urtetik beherakoak) direla bakarrik sentitzen direla baieztatzen duten adin-tarte nabarmenena (inkesta erantzun duten herritarren % 40ak baieztatu du hori). Hala ere, bakardade egoera zaurgarrienak ("Bakardadearen eskala" aplikatuta neurtu direnak) emakumezko helduek pairatzen dituzte. Gizonezkoen ehunekoa ere adin nagusienetan gazteenetan baino altuagoa da.

¹⁴ 2023. urteko erroldako datuak.

¹⁵ Rook, 1984,1391. or.

Fenomeno horren zergatiak aztertzea eta, batik bat, herritarren behar horiei erantzutea konplexua da, oso.

Bakardade ez-hautatuak **adin nagusienetan** eragin ditzakeen behar horietariko batzuei egun artikulatuta dauden zaintza-zerbitzuen bidez erantzuna eman dakieke. Esaterako, Zumaiako udalak kudeatzen duen etxez-etxeke zerbitzuaren bidez, etxeke lanetarako laguntza, erosketak egiteko laguntza... eskuragarri izan daitezke.

Zerbitzu horren erabiltzaileen gehiengoa, gaur egun, bakarrik bizi diren emakumezko helduak ("hirugarren adinekoak") dira. Zumaiako herritarrek erantzun duten inkestan ere arrisku egoeran 23 pertsona leudekeela identifikatu da¹⁶, gehienak emakumezkoak eta helduak (40 urtetik gorakoak).

Horrez gain, hautatu gabeko bakardadearen kasuan, jatorria ere faktore determinantea dela baieztatu daiteke, emaitza absolutuetan datuak bereziki esanguratsuak ez badira ere: egoera zaugarri hori pairatzen duten herritarren % 9k Estatuaz kanpoko herrialderen batean zuen jatorria¹⁷.

Beste behar batzuk, ordea, osasun mentalarekin, bakardade sentrazio ez-desiratuarekin lotura estuagoa dute. Eta, multzo honetan kokatuta leudeke **herritar gazteenak**.

Errealitate horien kudeaketa konplexuagoa da, erantzun integralago bat beharrezkoa duelako eta komunitatearen inplikazio handiago bat. Egun badira zeinbait zerbitzu horri aurre egiteko planteatuak, Itsasargi zerbitzua kasu. Horiek, ordea, 65 urtetik gorako pertsonen daude zuzenduta eta ez diote problematikari erantzun integralik ematen, puntuala b^{az}k.

Horrelako egoerak ekiditeko eta gehiagora ez joateko sistema bera birpentsatzea beharrezkoa da, bakardade egoera ez desiratuei alternatiba komunitarioen bidez erantzuteko. Logika asistentzialistak gaintzen dituzten zaintza zerbitzu komunitarioak sortzea interesgarria da, adibidez, azpiegiturretan espazioen antolaketa berriak frogatzea, bertan bizi-dinamika berriak bizi ahal izan daitezen, bakardadea ekidinez, pertsonen autonomia-maila ahalik eta handiena bermatzearekin batera, adina edozein delarik ere.

¹⁶ Los Angeleseko Unibertsitateak sortutako UCLA "Bakardadearen eskala" aplikatuta.

¹⁷ Aintzat hartu behar da galdetegia erantzun duten 398 pertsonen artetik 12k soilik baieztatu zutela Estatuaz kanpoko beste herrialderen batean zutela jatorria.

Herritar askok mendekotasun egoerek eragiten dituzten zaintza beharrei modu pribatuan erantzuteko erabakia hartzen dute. Fenomeno horren atzean dauden arrazoiak anitzak badira ere, zaintzaren inguruan eraikita dugun ikuskerarekin zerikusi handia du. Kontzepzio horren eraldaketa beharrezkoa da.

2020tik aurrera biderkatu egin dira familia ingurunekeo zaintzaile ez-profesionalei emandako laguntzak¹⁸ eta, batik bat, laguntzaile pertsonalak kontratatzekeo laguntzak¹⁹. Zumaiako zaintza zerbitzuetako plazak ere (apartamentuak, eguneko zentroa...) beteta daude.

Mendekotasun egoeraren bat bizi duten herritarrak zaintzeko zerbitzuen beharra handia da, hortaz, baina familiak, orokorrean, behar horiei modu pribatuan erantzuna ematera behartuta sentitzen dira²⁰, etxean, kasu gehienetan.

Erabaki horren atzean dauden arrazoiak anitzak dira:

- Zerbitzu publikoen gabeziak (plaza falta²¹, baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea) edota erantzun-denbora luzeak²².
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintza lanak eremu pribatuan "konpondu" beharrekeo egoerak direnaren bisioa gailentzea oraindik (emakumezkoek, kasu gehienetan, familia testuinguruan, etxean, zaintza-lan horiek beren gain hartuta)²³.
- Zenbait herritarren kasuan, zaintza-zerbitzu asistentzialistekiko jarrera kritikoa²⁴.

Gauzak horrela, administrazioak eta komunitateak, elkarlanean, zaintza-zerbitzuak izaera pribatua duen eremutik ateratzeko aukera eskaini behar dute eta horiek beste balio batzuen arabera artikulatu, logika komunitarioagotik, pertsonen beharrak erdigunean jarrita eta eredu berritzaileak frogatuta.

Gainera, etxe barruan ematen diren zaintza-lanei alternatiba bat eskaintzea ere beharrezkoa da, horien ardurak norbanakotik komunitatera zabalduta, ardurak birbanatuta eta, batik bat, zaintzaile diren pertsonen lan-eskubideak bermatzeari lehentasuna emanda.

Horrela, gainera, zaintza-lan pribatuetan lanean ari diren pertsonen egoera prekarioa gainditzea ere posible izango dira. Izan ere, emakumeak dira, migratuak gehienetan, ordaindutako zaintza-lanetan jarduten dutenak, baldintza txarretan ia guztiak. *Internaren* profilak dira esparru honetan egoera gordinenak bizi dituztenak. Baina, horiez gain, prekaritate eta lan-baldintza oso txarretan ere ari dira lanean zenbait egoitzetako langileak, etxez etxeko zerbitzuetakoak edota antzeko eremuetan

¹⁸ 2020an 22 pertsonak jaso zuten laguntza hori eta 2022an, berriz, 58k.

¹⁹ 2020an 21 pertsonak jaso zuten laguntza hori eta 2022an, berriz, 94k.

²⁰ Inkesta erantzun duten herritarren gehiengoak (% 66) onartu du, beharra izanez gero, senitartekoak edozein zaintza-zerbitzu publikotara bideratzeko prestutasuna izango lukeela..

²¹ 2022an 12 familiak eskatu zuten senitartekoak egoitza pribatuetara eramateko diru-laguntza.

²² Adibide moduan, 2023an desgaitasunen bat zuten pertsonen egoitza batean plaza lortzeko zuten itxaron denbora-media 688 eguneko zen; eguneko zentroetara sartzeko denbora-media 584 eguneko; osasun mentaleko problematikaren bat zuten pertsonen egoitza baterako sarbidea izateko denbora-media 123 eguneko; eta adineko pertsonen egoitza batean plaza lortzeko itxaron beharrekeo denbora-media, 123 eguneko.

²³ Inkesta erantzun duten pertsonen zainduak izateko beharra balute beren burua non ikusiko luketen galdeginda, % 39k aitortu du etxean zaindua nahi lukeela izan, senitartekoekin edo zerbitzu publiko bateko zaintzailearekin.

²⁴ Inkesta erantzun duten pertsonen zainduak izateko beharra balute beren burua non ikusiko luketen galdeginda, % 36k erantzun du gaur egungo ereduaren arabera ez den beste mota bateko zerbitzu publiko batean nahi lukeela izan zaindua.

zaintza-lanetan ari diren pertsonak. Bada, herritarron bizitzan sostengatzen dituzten pertsona hauen bizi-baldintzak duintzea ere lehentasunezko erronka behar da izan.

Zumaian baliabide ekonomiko faltagatiko zaurgarritasun egoeran dauden herritar gehienak emakume gazte (35-44) eta helduak (65+) dira

Zumaiako herritarren egoera ekonomikoa eskualdeko gainerako herrietan baino hobea da zifra orokorrean erreparatuta. Langabezia datuak ere ia etengabeko beherakada jasan du 2018. urtetik 2022ra artean (Covid-19ak eragindako osasun larrialdi garaian izan ezik) eta joera hori mantentzen da.

Datu ekonomikoak generoaren arabera aztertuta, ordea, honakoa nabarmentzen da: Zumaian emakumezkoak gizonezkoak baino eta inguruko herrietako emakumezkoak baino egoera zaurgarriagoan bizi dira. Horra zenbait erreferentzia:

- Soldatei dagokionez, emakume eta gizonen arteko arrakala nabarmena da: Zumaiako gizonezko eta emakumezkoen diru-sarreraren batz-besteak parekatuta²⁵ aldea, urteko, 10.000 € baino gehiagokoa da.
- Zumaiako emakumezkoen diru-sarrerak Urola Kostako eta Gipuzkoako gainerako herrietakoekin parekatuta ere, apalagoak dira²⁶.
- Alokairurako diru-laguntza jasotzen duten emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino altuagoa da Zumaian²⁷, beren diru sarrerak, orokorrean, baxuagoak direlako eta alokairua ordaintzeko arazo gehiago dituztelako hilabetez hilabete.
- 2022an Gizarte Larrialdietarako Laguntza jaso zuten pertsonen kasuan, eskatzaileen gehiengo zabala emakumezkoa izan zen (53 emakumezko eta 13 gizonezko). Kasu honetan, bereziki nabarmena da 25 eta 54 adin tartea: adin-tarte horretan kokatutako 33 emakumek jaso zuten 2022an GLL eta adin bereko gizonak, berriz, 6 baino ez ziren izan.
- Diru Sarrerak Bermatzeko Prestazioa ere emakumezko gehiagok jasotzen dute²⁸.
- Inkesta erantzun duten herritarren erantzunak generoaren arabera aztertuta ere, argazkia antzerakoa da: diru-sarrera baxuenak aitortzen dituzten herritarren gehiengoak emakumezkoa da²⁹.

Errealitate horren arrazoia da prekarizazio-maila altuagoa jasaten dutela Zumaiako emakumeek beren lanpostuetan, feminizatutako lanetan (zaintza-lanak, kasu) soldatak maskulinizatutako beste batzuetan baino askoz baxuagoak direlako.

²⁵ Emakumezkoen kasuan 18.496€koa da biztanleko errenta pertsonalaren media eta gizonezkoenean, berriz, 31.811€koa.

²⁶ 2020. urtean Urola Kostan emakumezkoen batz-beste pertsona-errenta 18.636€koa izan zen; Gipuzkoan 18.687€koa; eta Zumaian, berriz, 18.496€koa.

²⁷ 2021 eta 2022 urteetan diru-laguntza jaso zutenen artean 58 emakumezkoak izan ziren eta 31, berriz, gizonezkoak.

²⁸ 2022an, 75 emakumezko eta 54 gizonezko izan ziren onuradun titularrak.

²⁹ Urtean 15.400€ baino gutxiago irabazten dituztela aitortzen duten herritarren datuak aztertuta, 121 pertsonatik 104 dira emakumezkoak.

Fisikoa zaintzearen inguruko kontzientzia altua bada ere zumaiarren artean, zaintza-lanak egin beharrak hori modu argian baldintzatzen du. Kasu horretan ere zailtasun gehien pairatzen dituztenak emakumezkoak dira, zaintza lanen ardura nabarmenagoa beren gain hartu behar izanda, lana, zaintza eta bizitza pertsonala kontziliatzeko arazoak dituztelako.

Egoera fisikoa zaintzearen inguruko kontzientzia maila altua da Zumaian, orokorrean: inkesta erantzun duten herritarren % 81ek dio astean gutxienez ordu erdiz ariketa fisikoa egiteko ohitura duela. Kirol azpiegitura publikoek gain, gainera, kirol elkarte ugari daude herrian eta baita hainbat gimnasio pribatu ere. Aukerak eta azpiegiturak, hortaz, badituzte herritarrek (azken horietara sarbidea izateko egoera ekonomiko prekarioan bizi diren herritarrek zailtasun gehiago izan baditzakete ere).

Zaintza lanak egin beharrak, ordea, maila batean baldintzatzen du ariketa egin nahi hori. Horrela adierazten dute inkesta bete duten herritarren % 34k. Horrez gain, zaintza lanak bere gain dituzten herritarrek ere adierazten dute lan horiek egin beharrak beren egoera fisikoa kaltetu dutela (zehazki, % 43k adierazi du hori).

Gainera, lana eta zaintza-lanak kontziliatzeko arazoak dituztela onartzen dute inkesta erantzun duten herritar gehienek (“batzuetan” dio % 43ak eta “sarritan” % 17ak).

Emakumezkoak dira, zentzu horretan, kalte gehien pairatzen dutenak, eurak baitira gehien zaintzen dutenak.

Bada, emakumeak etxe barruan eta kanpoan egiten duten lana burutzeko bizirautera kondnaturik daude. Kondena horretan aisialdirako, beren buruaren zaintzarako, kirola egiteko edota gozamenerako tarterik gabe bizi dira askotan. Zaintza-lanek egoera fisikoan eragin zuzena dute eta askotan ezinezkoa zaie familia, aisialdia eta norbere buruaren zaintza lan-ordainduarekin kontziliatzea.

Gero eta egoera ekonomiko prekarioagoan bizi, orduan eta aukera gehiago dituzte Zumaiako herritarrek osasun mentala kaltetu dezaketen arrisku egoerak jasateko eta, horien ondorioz, psikofarmakoak kontsumitu behar izateko. Zentzu horretan, jatorria, kaudimen ekonomikoa eta generoa baldintzatzaile argiak dira.

Inkesta erantzun duten Zumaiako herritarren % 13k aitortu du bere egunerokoan psikofarmakoren bat kontsumitzeko beharra duela, arrazoiak arrazoi: lotarako arazoak dituztelako; antsietatea, estresa edo depresioa dutelako...

Herritarrek egiten duten psikofarmakoen kontsumoa, ordea, oso ezberdina da baldintzatzaile sozial ezberdinak aztertzen badira:

- Egunerokoan psikofarmakoak kontsumitzen dituzten emakumezkoen kopurua altuagoa da gizonezkoena baino (% 15 vs. % 7).
- Kaudimen ekonomikoaren arabera, aldea ere nabarmena da: 8.000€tik behera jasotzen duten herritarren % 24k hartzen ditu egunerokoan psikofarmakoak. 35.000€tik gora kobratzen dutenen artean, beriz, % 8k.

Datuak aztertuta, ordea, baldintzatzaile nabarmenena jatorria da: Euskal Herritik kanporako herrialderen batean jatorria duten herritarren kasuan, % 42raino igotzen da egunero psikofarmakoak kontsumitzen dituztela baieztatzen dutenen kopurua. Zumaian edo Euskal Herriko beste herriren batean jaiotakoaren artean, berriz, %10-17koa da datua.

Gazteen artean ere kontsumo-joera hori orokortzen ari dela baieztatu daiteke, gainera, Zumaiako datuak bere horretan ez baditugu ere. Deustoko Unibertsitatearen "Drogak eta eskola" inkestak Gipuzkoari dagokionez emandako datuen arabera, droga eta alkohol kontsumoak gazteen artean ez du gorakada nabarmenik jasan azken urteetan. Aldiz, edari energetikoen eta, batik bat, psikofarmakoen kontsumoak (errezetarekin eta gabe), gora egin du.

Gauzak horrela, baieztatu genezake cisheteropatriarkatuaren baitako posizio hegemonikoak dituzten profilek (gizonezko arrazializatu gabeak, adinez helduak eta kaudimen ekonomiko onekoak) gaur egun osasun mentala kaltetu dezaketen arrisku egoerak jasateko eta, horiei aurre egiteko, psikofarmakoak kontsumitu behar izateko arrisku egoera gutxiago bizi dituztela beste profil batzuetako pertsonen baino.

Irisgarritasun arazoak planteatzen dituzten kale eta eraikinak ere badaude herrian eta beharrezkoa da horiei apurka aurre egitea desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen beharrak aintzat hartzeko, horiek zaintzeko eta abegikorra den espazio fisiko bat bermatzeko.

Zumaian identifikatuta eta kuantifikatuta daude desgaitasun fisikoren bat edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen eraikin, kale eta garraiobideetan ibili behar izaten dutenean aurki ditzaketen arazoak.

Horiei erantzutea ez da kontu erraza edo merkea. Hala ere, beharrezkoa da erronka horri apurka aurre egitea, horretarako urteroko aurrekontuan partida bat aurreikusita, lehentasun gehien duten esku-hartzeetatik hasita, egoera konponbidean jartzeko.

Horrez gain, beharrezkoa ere bada egiten diren obra berrietan eta eraikitzen diren azpiegitura berrietan, uneko legediak markatutako oinarriak errespetatzeaz gain, herrian problematika horiek bizi dituzten pertsonen behar eta iritziak aintzat hartzea. Zentzu horretan, interesgarria da pertsona horiek saretuta mantentzea eta udaleko arduradun tekniko eta politikoekiko interlokuzio kanal eraginkorrak sortzea.

ONDORIO OROKORRA:

Zaintza sistema berri bat eraikitzea beharrezkoa da etorkizuneko erronkei modu efektiboan erantzuteko, egungo jendartearen paradigma aldatuta, egiturazko desberdintasun eta subordinazio egoerak gaindituz, jendartearen atal guztiak inplikatur, kolektiboki ardura hartuta eta lanak birbanatuta, agente eta eragile ezberdinak saretuta eta elkarlanean jardun dezaten koordinazio eremuak sortuz

Gauzak horrela, Zumaiako zaintzari dagokionez, ondorioen atal honetan zerrendatutako errealitatea behin aztertuta, baieztatu genezake horrelako erronka mardul bati aurre egiteko ez dela nahikoa zerbitzu gehiago eskaintzea.

Horren ordez, beharrezkoa da zaintzarekiko dugun ikuspegia, zaintzaren paradigma bera aldatzea, jakitera emateko zaintza herritar guztien ardurapeko gaia dela, egungo pribilegio eta zapalkuntza dinamikak gaindituta eta herritarrek kontzientziatuta.

Zaintza norabide askotako elementua dela ulertu behar dugu: zainduak izan behar dugu pertsona orok eta guztiok dugu norbait zaintzeko erantzukizun kolektiboa. Bizitzako etapa guztietan behar dugu elkar zaintza, zahartzaroa eta haurtzaroa badira ere zaintza dependentzia handienak dituzten garai bitalak.

Hortaz, zaintza erdigunera ekarri behar da, herritar guztion ardurapekoa dela aditzera emanda, hain zuzen ere, guztiok dugulako zainduak izateko beharra uneren batean edo bestean.

Horren inguruko kontzientziarik ez dugu, ordea. Inkesta erantzun duten pertsonen artean, esaterako, gehiengo oso zabala (%73) emakumezkoa izan da, gaiak zuzenean gizonezkoak baino askoz gehiago interpelatu dituenaren seinale. Horrez gain, inkesta erantzun duten herritarrei zaindua izateko beharra ote duten galdeginda, ehuneko oso txiki batek soilik (% 3) erantzun du baietz, modu batera edo bestera, uneren batean edo bestean, zaindua izateko beharra duela.

Jendarte mailan erronka horri erantzuteko beharrezkoa zaigu:

- **Modu kolektiboan pentsatzea**, herritar guztien inplikazioa eta protagonismoa bilatuz eta erraztuz, pertsonen bizi baldintzak hobetzeko eta gizarte inklusiboagoa eta kohesio gehiagokoa eraikitzeko, horrela eraldaketa soziala posible eginez. Ekintzara pasa behar gara, komunitatea ahaldunduz. Horretarako, norbanako kontziente, arduratsu eta konprometituen erantzun kolektiboak beharrezkoak dira, eta orain artean izandako harremanak birpentsatzea, egungo pribilegio/subordinazio sistema, botere harremanak eta kulturen ikuskera hegemonikoak gainditzeko.
- **Gaur egungo antolaketa administratiboa birpentsatzea eta zaintza lanen inguruko administrazioen kompetentziak berrantolatzea**, udalei, herritarrengandik gertuen dagoen instituzioa izanik, protagonismo handiagoak eskainiz. Instituzio publikoak behar dute izan zaintza eta ongizatearen eremuko agente guztiak (zerbitzu publikoak, zerbitzu pribatuak eta merkatua, hirugarren sektorea, komunitatea, familia) kudeatu eta koordinatzen dituenak.
- **Zaintzara bideratutako baliabideak** (ekonomikoak, pertsonalak) **handitzea**.

Finean, erronka nagusia zaintza-sistema berri bat artikulatzea da, jendarte eta instituzioak saretuta eta norabide berean lanean jarrita. Bada horren inguruan kontzientzia duen herritarrik egun (galdegia erantzun duten herritarren %36k esan du gaur egungo ereduaren arabera ez den beste mota bateko zaintza zerbitzu komunitario batean ikusiko lukeela bere burua). Ideia horretan

sakontzen jarraitzea eta jendarteari ikuspuntu asistentzialista gainditzen duten alternatiba berriak eskaintzea gakoa da.